

# GUaiXE.net



Igandera arte  
**Pintxo Astea**  
Altsasun



Sakanerria >> 12

III. Burunda Sakana **bizikleta**  
**martxaezlehiakorra** bihar izanen  
da. **Altsasun hasi eta bukatu, 124**  
**km-ko ibilbidea du**



Kirola >> 17



Langileek, atzera ere, haien aldarrikapenak lantegi atera emaran dituzte aste honetan.

**Mank-ek**  
**euskarazko**  
**sormen lanak**  
**sartu ditu >> 23**

**Irurtzungo**  
**igerilekuan**  
**lanak egingen**  
**dira**

Aurrekontu parte-  
hartzailen prozedu-  
raren bidez erabaki  
dute irurtzundarrek  
lan horiek egitea

>> 8

**Presoen alde**  
**plazak**  
**betetzera**  
**deitu dute**

>> 6

## Baikap-ek Inasako makineria saldu du

>> 8

**Lakuntzako Udalak**  
**zinema ingurua**  
**urbanizatuko du**

>> 12

**Memoriaren zentroa**  
**Etxarrin ostegunean**  
**aurkeztuko dute**

>> 3

**Olatzagutiko**  
**San Migel pilota**  
**txapelketa gaur**  
**jarriko da**  
**martxan**

>> 20



**Hondakin**  
**bilketari**  
**buruzko**  
**informazio**  
**kanpaina**  
**Irurtzunen >> 12**

**Olatziko Lore eta Landareen**  
**VI. Azoka**  
Maiatzak 19  
10:30-14:00

Ludotekako neske-mutiek eginiko karteia

DL NA711-2013  
LG NA 711-2013

**Sakana**  
optika

**Eguzkitako betaurrekoetan**  
**AZKEN NOBEDADEAK**

Eguneko  
30 ukipen-lenteak  
18,90€tan

optikasakana@gmail.com • 948 563 124 • Iortia Plaza 11 • ALTSASU

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioko-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Joseba**  
ZORIONAK etxeko artista-ri!! 8 urte azkenean!! Zeinen handia! Oso egun polita pasa dezazula. Muxu handi bat Aneren, amaren eta aitaren partez.



**Irati Begiristain Garcia**  
Ze azkar pasa diren 11 urte!! ZORIONAK IRATI!!



**Inhar**  
ZORIONAK eta muxu asko!! Alicia eta Victor gurasoak, amona, aitona, osaba Naxo, izeba Amaia eta bidean datorren txikia.



**Anartz Garzia de Albeniz**  
Arbizuko mutikorik politenai ZORIONAK 8. urtebetetziari!! Egun polita pasa eta muxubek etxekuen partez.



**Lorea Lacalle Etxarri**  
ZORIONAK potxola!! Urte bat dagoneko!! Muxu asko asko familia guztiaren partez.



**Elai Gomez**  
Maiatzaren 16an 11 urte bete dituzu. ZORIONAK familiaren eta lagunen partez. Asko maite zaitugu.



**Oier**  
18an 8 urte betetzen dituen Oier jatorrarentzat ZORIONAK. Urko, ama eta aita. Asko maite zaitugu.



**Unai Rekalde**  
Zure begien distirak guri argitzen gaitu. Zelakoa izango da gure bizia zure begiak ikusi gabe. ZORIONAK maitia.



ZORIONAK zuen 50. urtemugan eta mila esker guteko bakoitzangatik ein dezubein guztiangatik eta sortu dezubein familiyangatik. zuen albuena izen ga ta ga oso zoriontsubek, maite zaituztegu, etxekuek.

## maiatzak

# 17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Etxarri Aranazko abesbatza.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 19:45ean Arbizuko elizan.

**Nafarroa 1512.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 23:00etan Arbizuko Argi Bidean.

**Azken oihu+Ze esatek.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 23:00etan Bakaikuko elkarteak.

**Youssef+Arrebote.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 21:45ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**EuskOrleans Dixie Band.** Maiatzaren 19an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Erkudengo Ama abesbatza.** Maiatzaren 19an, domekan, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

### Antzerkia

**Kaka burutik behera.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. Javier Esteban, Ainhoa Juaniz eta Isabel Azpiroz.

**Esta noche teatro.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean.  
**Jus la rocha antzerki taldea.**



### Dokumentalak

**Iñigo Cabacas. Cronica de una herida abierta.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

### Zinema

**Anna Karenina.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 19an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteera

**Imozko itzulia.** Maiatzaren 19an, igandean, Iratxo elkarteak.

**XXXI. Lakuntza-Amezketak.** Maiatzaren 19an, igandean, Altsasuko Mendigoizaleak.

**Nerbioiko iturburuak.** Maiatzaren 19an, igandean. Sakanako ikastorien mendi taldea.

### Txirrindula irteerak

**VII. Iruñerriko mendizerrak.** Maiatzaren 19an, domekan, 7:30ean Altsasuko Burunda Mendi Bizikleta taldearen egoitzatik. 70 km.

### Ibilbidea

**Behoko basoan interpretazio ibilbidea.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko udaletxeko estalopetik.

### Erakusketak

**Lentzeria.** Maiatzaren 19an, domekan, 11:00etatik 14:00etara Olatzagutiko kultur etxean.

**Koldo Arnanz arte eskola.** Maiatzaren 26ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Itsasotik oihanera.** Maiatzaren 26ra arte, astez 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara, Irurtzongo liburutegiko beheko solairua.

### Hitzaldiak

**Edoskitzea eta hazkuntza.** Maiatzaren 22an, asteazkenean, 11:15ean Altsasuko osasun etxean.  
**Hizlaria: Ana Santano, Amagintza.**

### Tailerrak

**Sukaldaritza.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Henna.** Maiatzaren 19an, domekan, 17:30etik 19:30era Altsasuko

Intxostiapunta gazte gunean.

### Bestelakoak

**Dantza maratona.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 17:30etik 19:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Haurren eguna.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 10:30ean Etxarri Aranazten.

**VI. Lore azoka.** Maiatzaren 19an, domekan, 10:30etik 14:00etara Olatzagutiko San Migel plazan.

**Guraso eskola.** Maiatzaren 20an, astelehenean, 15:20tik 17:00etara Irurtzongo Atakondoa eskolan.

**Planta T, kosmetika naturala.** Maiatzaren 22an, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. 14 urtetik gora.

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataforma.** Maiatzaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 17an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Auzolana.** Maiatzaren 18an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Dantzalekun. Gosaria egonen da.

**Plazara! Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea.** Maiatzaren 18, larunbatean, herrietako plazetan. Herrira. Ikus 6. orria.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Maiatzaren 20an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Osasun duinaren aldeko eskubidea.** Maiatzaren 22an, asteazkenean, 11:00etan Altsasuko azokan.

**Enneco, Haritzaren memoria proiektuaren aurkezpena.** Maiatzaren 23an, ostegunean, 21:00etan, Etxarriko Kultur Etxean. Udala eta Nafarroa 1512-2012 ekimena.

### Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

107.3 FM  
**beleixe** online  
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak,  
Palestina, kulturartekotasuna, goi tentsioko linea...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

Maiatzaren 23an, ostegunean, 21:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean

Enneco, haritzaren memoria interpretazio zentroa izena du. Eta Nafarroa Bizirik Fundazioak sustatu du. Euskal Herrian dagoen hutsune handi bat betetzeko helburuz sustatu du fundazioak: gure historia eta imaginario kolektiboa jasoko dituen zentro bat egitea, gure herriaren memoria berreskuratzeko eta ezagutzera emateko asmoz. Nafarroa Bizirik-etik irudikatu duten zentroa historialari (zein jendarte-zientzietako aditu oro), euskal herritar eta bisitarien natura-topalekua izatea da.

Nafarroa Bizirik fundazioak Etxarri Aranazko Udalarari proposatu dio zentroa herrian egitea. Zehazki, Basopokale eta Danbolintxulo lotzen dituen bidearen hegialdean. Fundazioaren ustez, Etxarri Aranatz "oso herri egokia da horrelako proiektu bat garatzeko, Euskal Herriko hiri nagusien gurutze-bide delako, eta naturagune bikaina duelako". Bestalde, proposatzaileen iritziz, "Sakanako herriak gure tradizioaren, historiaren, kulturaren eta hizkuntzaren lekuko paregabeak dira. Abiapuntu ezin hobea gure

# Interpretazio zentroa egiteko proposamenaren aurkezpena

Ostegunean aurkezpena



Etxarriaran Hazten parte-hartze planaren barnean, Nafarroa Bizirik Fundazioak, Etxarriko Udalak eta Etxarri 2012+1 ekimenak, interpretazio zentroaren proposamenaren aurkezpena egiteko batzarra antolatu dute, egitasmoa xehetasunez azaldu, eta etxarriarren usteak eta iritzia jasotzeko. Udaleko ordezkariekin batera, aurkezpenaren izanaren dira: Markos Erro (udaleko aholkulari juridikoa), Patxi Abasolo (Fundazioko lehendakaria), Gaizka Aranguren (proiektuaren sustatzailea), Vicente Azpilikueta (fundazioko koordinatzailea) eta Iñaki Erdozia (arkitekto etxarriarra).

Herrian garrantzi handiko erreferente izango den memoria-gune hori gauzatzen hasteko".

Sustatzaileen asmoa da turismo kulturalaren esparruan "erre-

ferentziazko gunea" irekitzea: "euskaldunon herria eta izaera ezagutu nahi duen munduko bisitari ororentzat ezinbestekoa bihurtuko den azalpen gunea eskain-

tzea". Euskal Herriko ikasleek bertako historia ezagutzeko gunea izatea ere nahi du fundazioak. Memoriaren zentroaren sustatzaileek jakinarazi dutenez, proiektua

Euskal Herri osoko herritar, talde eta instituzioen parte-hartzearen bidez landu eta finantzatu nahi dute, "auzolanaren kulturaren bidez".

## &gt;&gt; Irurtzun



Arroza prestatu bitartean musikaz gozatzeko aukera ere izanen da.

## Arroz aleka mundua ezagutzera

Hilaren 25ean, 10:00etatik aurrera ospatuko den Munduko Arrozak ekitaldian parte hartzea gonbidatu dute

Arroz aleak berdinak dira han eta hemen. Ez, ordea, arroza prestatzeko moduak. Oinarri bera izanda jatorriaren arabera ezberdinak gara pertsonak. Eta horixe da Munduko Arrozak ekimenaren bidez Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak adierazi nahi duena: "desberdinak gara, baina berdinak ere". Heldu den astean ospatuko den Munduko Arrozaren V. edizioan elikagaia horren sinbolo bihurtuko da.

Zein bere jakituriatik eta ohituratik abiatuta arroza prestatu-

ko du, aldi berean plater unibertsal bat sortuz. Hala, jatorri ezberdinetako pertsonak nor bere suan baina eskuz esku ariko dira, berdintasunean parte hartzen, arroza prestatzen. Aldamenean bizi den irurtzundar edo sakandarrak arroza nola prestatu duen ezagutu, dastatu eta galdetzeko aukera emanen du Mank-en ekimenak. Berdintasunean.

### Informazio gehiago

Kultur arteko elkarbizitza topaketari buruz gehiago jakiteko: 648 070 710.

## &gt;&gt; Lakuntza

## Jaki, doinu eta dantza ezberdinak, baina denak lakuntzarrak

Txingurriyek antolatutako Kulturartekotasun festa oso arrakastatsua izan zen

Txingurriye laguntza eta aisialdi taldeak antolatuta, larunbatean festapolita burutu zen Lakuntzan, Kulturartekotasun festa. Herritarasko hurbildu ziren plazara. "Lakuntzan bizi garen kultur guztiak elkarrekin topaketa bat egiteko eta elkar ezagutzeko antolatzen dugu festa hau" adierazi ziguten Txingurriye taldeko Mari Jose Imirizaldu eta Txarete Ganboak. Izan ere, Lakuntzan hainbat herrialdeetatik etorritako bizilagunak daude. "Kolonbiarrak, senegaldarrak, marokoarrak-batzuei senitarteko bat hil zaie han eta horregatik batzuk ez dira etorri-, perutarrek, Errepublika Dominikarrak... eta gu, euskaldunak" azaldu digute.

### Auzate ezberdina

Horrela, erakusketan herrialde bakoitzeko musika tresnak, jantziak, apaingarriak, edariak... ikus zitezkeen. Txoko batean kometak egiten aritu ziren neska-mutikoe-kin, beste batean pintatzen, eta aurregia margotzen ere bai. Auzate berezia prestatu zen, herri ezber-



Ikasitako dantzak erakutsi zituzten Lakuntzako plazan.

dineko jakiez osatutakoa. "Hemen go erroskillak, kolonbiarrek egindako gazta buñueloak, perutarrek urdaia eta bananarekin egindako takatxoak, marokoarren tea eta pastak, Errepublika dominikarreko rona... gainera jakiak guztiz prestatu gabe ekarri ditugu, hemen guztien artean egiteko eta oso ongi pasatzen arigara" gaineratu zuten Ganboak eta Imirizaldu.

### Besteen dantzak ikasi dituzte

Jatorri ezberdineko lakuntzarrek dantza ikastaroa egin dute, borondatezkoa eta dohainik, eta guztiek herrialde bakoitzeko dantza bana ikasi dituzte: merenguea, euskal zortzikoa, saltsa, Senegalgo dantza... eta ikasitakoa plazan prak-

tikan jarri zuten, guztien harridurarako, guztiek bikain dantzatu baituzten. "Ez dakit ikasi dugun, baina izugarri ongi pasatu dugu" zioten jatorri ezberdinetako parte hartzaileek. "Harrigarria da beste kulturetakoak egin dutena. Beste herrietan bizi diren euren ezagunak ekarri dituzte festara. Gauza handia iruditzen zaigu, beraiek prestatu zuten inplikatu zuten direlako gu baino askoz ere gehiago. Edozein gauzarako prest daude: dantza ikastaroa, festa bera... Gainera, ikusentzunezko moduko bat prestatu du herrialde bakoitzak, bere lurraldeari buruz" gaineratu zuten Txingurriye taldekoek, festa antolatzen jarraitzeko asmoa berretsiz.



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

NON GAUDE - NORA GOAZ

# Krisiaren ondorioak. Dena hankaz gora

Orain dela mende luze bat, komunismoak Errusian bere bidea asmatu zuen. Europako gerrak zirela eta komunismoaren internazionaltasuna isolatu zen muga nazionaletan ixteko. Hori dela eta, komunismoaren bertso ezberdinak sortu ziren: Erru-

sian, Txinan, Kuban... Kapitalismoak eta komunismoak polarizatutako mundu hartan, sozialismoak, sozial-demokraziak eta laborismoak ere bere bidea egin zuten XX. mendean, liberal kapitalismo soziala azpimarratzeko. XX. mendean, krisi ezberdinak

izan ziren, bai petrolio gerrak, Ekialde Ertainean, bai ekonomia krisi dexente, herrialdeen artean konpetentzian jolastu nahian globalizazioa garaian. Azken krisia 2008koa da. Banku eta finantza ingeniariak asmatutako azken krisi honek,

denok pobreago bihurtu gaitu, aspaldi ahaztutako miseriak berriro aurrean izateko.

Baina honek ere, kriston krisi politikoa dakar, eta gaur egun, dena hankaz gora dago. Frantzia orain dela gutxi Hollandek esan zuen: "krisiak Europako

gobernu guztiak merendatuko ditu". Troika deitzen denak, hori egiten ari da, eta Frantzia merendatzeko bidean daude. Orain dela 24 urte, komunismoa merendatua izan zen. Eta sozialismo antzekoak merendatuak izanen dira ere? Hala dirudi.

## barrutik kanpora

# Apirila-maiatza

Jipoi berri bat / Barau eguna egiten ari dira astean behin kartzela guztietan / Katxeatu egin nahi izan zituzten familiartekoak: bisitari gabe geratu ziren. / Bi istripu berri. / Aita hil eta hamabi egunera ekarri dute Manex Castro senideengana, bidean egin ditu 12 egunok. / Oroitz eta Lierni preso bikotea guraso izan dira, baina 7 hilabete ondoren aitak ez du haurra ezagutzen / Elkartasun Eguna Etxarrin: egun bete

izan zen / 11 dira 6 aske geratu direnak, 18 atxilotuak, bizi gutzirako kondena 1, estradizioak 2.

Urtebetetzeak Poxtiñak, Asierrek eta Hodeik: ZORIONAK. Asier: Ikasten darrai. Hodei: bakartuta ondoren, lagunekin da modulu berri batean; ikasten darrai. Luis: Aurrez aurreko bisitari gabe utzi zuten ama nortasun-agiria kadukatu zitzaizola aitzakiaz. Poxtiña: Ukatu egin diote Parot Dotrinaren kontrako

alegazioa.

Luis Peña, hil egin da, isilpean eduki zuten ospitalean, aurkitu egin behar izan zuen familiak, hil eta 12 ordura bisitatzera joan zirenean jakin zuen familiak hilik zegoela.

Torturaren Europako Kontseiluak sinesgarritzat eman ditu Espainiako poliziak eragindako torturak. Espainiako Torturaren Prebentziorako Taldeak ere tortura eta tratu txarren 29 egoera

kasuantz eman dituzten urtean Euskal Herrian, 68 pertsoneri eraginez.

Sarekada berri bat: 6 atxilotu. Horrela estali nahi ditu bere ezinak, gabeziak eta beldurrak Gobernuak. Baina gu ez gara geure bidetik pauso-erdirik ere aterako.

Oiartzungo herritar talde batek presoen aldeko bi maratoi antolatu ditu. Bat oso erraza. Ekainaren 2rako. Parte-har-

tze librea. Bidea laster egiteko etxera bidean.



Sakanako Etxerat

## hara zer dien

# Zer egin dezakegu antsietate krisi baten aurrean?

Antsietate krisi bat izan dutenek badakite oso ongi, sentitzen dituzten sentsazio fisikoak oso fuertekak direla eta zerbait txarra pasatu behar zaiela sentitzen dute; askok, bihotzekoak eman behar diela eta hil behar dutela uste dute, bihotz taupadak oso handiak direlako. Itto egingo direla sentitzen dute eta bularreko mina, botalarria, beldurra, negarra, dardarak, izerdia, erotuko direnaren sentsazioa... edukitzea ere ohikoak dira.

Jakin behar da, nahiz eta sen-

tsazio oso fuertekak izan, pertsona arriskutik kanpo dagoela.

Hona hemen krisia gertatzen den momenturako gomendio batzuk:

1-Lehenik eta behin, onartu gertatzen ari zaiguna antsietate krisi bat dela eta hurrengo minutuetan sintoma horiek sentituko ditugula. Sintoma horiek oso desatseginak izan arren, ez dira arriskutsuak, ez eta kaltegarriak ere. Geure buruari mezu hau igorri behar diogu, arduratzeke motiborik ez dagoela esanez eta

sentsazio horiek pasatu arte itxaron beharko genuke.

2-Gure atentzioa kanpoko gauzetan jarri behar dugu: zerbait ukitu, musika entzun, abestu, mugitu, norbaitekin hitz egin, zerbait atseginen pentsatu...

3-Hiperbentilazioari aurre egin: antsietate krisietan gertatzen den oinarritzko mekanismo bat delako. Honetarako, arnasketa kontrolatzeko teknikak erabili ditzakegu, azalekoa eta azkarra den arnasketa, sakonekoa eta erregularra bihurtu dadin. Dena

den, hiperbentilazioari aurre egiteko modurik azkarrena, gure gorputzean karbono dioxidoa sartzean datza. Hona modu batzuk hori egiteko:

- Sudurreko zulo bat tapatu eta bestearekin arnasa hartu.

- Ezpainak pixka bat ireki eta arnasa ahotik hartu, kandela bat itzaltzen egongo bagina bezala.

- Boltsa bat hartu eta ahoa eta sudurra barne ditugula arnasa bere baitan hartu, lasaiago sentitzen garen arte. Dena den, gehiegizko erabilera ez egin, gure kar-

bono dioxidoa bortizki igo daitekeelako.

Estrategia hauek, antsietate krisia gehiagora ez joateko modu bat dira, baina oso larri ikusten badugu geure burua, larrialdietara jo. Dena den, egoera hauek maiz errepikatzen badira, zerbait ondo ez dihoan seinale dira eta profesional bati laguntza eskatzea pentsatu beharko genuke.

**Arantxa Sueskun Igoa,**  
Psikologoa-Psikoterapeuta

## Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Maria Luisa Zelaia Mendia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Ariketa demokratikoa

Mikel Mundiñano Larraza,  
Etxarri 2012 +1 ekimenaren izenean

Etxarri 2012 ekimena martxan jarri genuenetik zer ginen, zer garen eta etorkizunean zer izan nahi dugun izan dira oinarriak. 2013an erabakitze eskubidea jarri nahi izan dugu etxarriarron eskura. Ariketa demokratiko bat; benetako demokrazian oinarri behar lukeen eskubidea praktikara eraman nahi dugu. Hauek dira arrazoiak:

1. Batzarrak izan dira herri-tarron erabakiak aurrera eramateko guneak; (...) herri-tarrok kolektiboki hartu izan ditugu erabakiak eta bide horretan pausok ematen jarraitu nahi dugu.
2. Galdeketa iritzi ezberdinen

topaleku modura planteatzen dugu. Elkarren arteko errespetuzko jarreretatik abiatu nahi dugu.

3. Abiapuntu ireki batetik egingen dugu galdeketa aldeko apustua, aurretiko inolako jarrerarik gabe. Iritzi guztiak errespetagarriak eta kontuan hartzeak direla uste dugu.

4. Gure helburua herritarren artean galdeketa, ariketa demokratikogisa aurrera eramatea da.

5. Beste ekitaldien modura hau ere, herritarren arteko harremanak hobetzeko asmoz bultzatu dugu, iritzi guztien errespetuan oinarritzen direlako herritarren arteko harreman zuzenak.

6. Erakutsi nahi dugu Etxarri baduela heldutasun demokratiko nahikorik gai honen inguru-

ruan bakoitzak bere iritzia askatasunez emateko.

7. Ikuspegi demokratiko batek ikusten dugu galdeketa bidea, ariketa berari eman nahi diogu garrantzia.

8. Benetako demokrazia batek bere dituen baloreetan sakondu nahi dugu: herritarren elkarbizitza, partehartzea edota herritarren iritzia aintzat hartzearena.

Bide batez Udalak gehiengo osoz onartutakoa txalotu nahi dugu eta herritarrek zoriondu, memoria historikoaren ezagutzan eta erabakitze eskubidearen aldarrikapenean erakutsitako inplikazio eta babesagatik.

Erabakitze eskubidea herri-tarron esku dago!

Osozik: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en)

## Altsasu, festa asko eta langabezi handia

Arturo Carreño Parras, Iuko zinegotzia

Altsasuren egoera arretaz behatzen badugu, kezkatzeko modukoa da, asko gainera. %25eko langabezia indizearekin 800 pertsona edo gehiago, ez da onargarria agintariek neurri aringarriak eta doitasunezkoak ez hartzea. Lanik ez badago, ez dago soldatarik edo saririk, soldatarik ez badago oinarritzakoa eta beharrezkoa besterik ez da kontsumitzen egunerokoari ahal bezala aurre egiteko.

Nafarroako herri batzuetan, irizpide egokiz, haien festak egun bat moztea erabaki dute, eta diru hori herritar guztiendako premiazkoagoak direngaitara bide-

ratu dute. Altsasun, talderen batek proposatu badu ere, ez da ongi onartua eta, gainera, festa gehienetan beti daude festen aurreko bi egun. Eskerrak gurasoak eta aiton-amonak ere seme-alaba eta ilobei paga emateko daudela. Moralki, etikoki eta laguntzarik ez dutenekiko elkartasunagatik, agintari guztiek eta udalak ere, enplegua sustatzeari indar gehiago eskaini beharko liokete, lan-nitxoak opatzea, enpresak herrian kokatzeko eta ekonomia berpizteko abantailak eta lurra eskaini, dagoen egoerarekin premia handia baitugu.

Ez gaude inolako festaren kontra, baina diru publikoa, are gehiago egoera honetan, irizpide onarekin gastatu behar da eta beharrak lehenetsiz, herritar guztiak asetzeko.

## gora/behera

**Kulturartekotasuna**  
Festa ederraz gozatu zuten jatorri ezberdinetako lakuntzarrek. Sakan-darrek Munduko Arroztean dugu aukera.

**Baikap**  
Inasa ixteko asmo irmoarekin aurrera segitzen du.

## objektibo tik



## Eraikin bat, bi begirada:

Pentsa genezake begiarekin keinu egiten digula etxe honek. Keinua triste da, ordea, behartua delako. Batak bizia, esperantza, aukerak adierazten dituen bitartean, besteak iluntasuna, hezetasuna, hustasuna besterik ez digu erakusten; nahiz eta keinu egin.

objektibo tik: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)



## Tokiz kanpo:

Fatxada batean dagoelako? Plastikozkoa ez delako? Argindarrarekin zeri-rikusirik ez duelako? Horregatik dago lorea lekuz kanpo? Kutxa elektriko baten zatia dago tokiz kanpo, kabletik zintzilik. Hori bai. Argindar instalazioak asmatu aurretik zebiltzan lore haziak airean, haizetan...

## Bazkide zozketa



## MAIATZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO 2 SARRERA + KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1  
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO

AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1  
3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1  
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1



## Non erabili

## Beleixeguaixe txartela

[www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en) zerrenda osoa ikusgai

ARKANGOA TABERNA  
ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA  
ALTSASU

Betileen permanentea eta tintarekin, atzazkalak zure erara margotu doan.

PINPILINPAUSA  
ALTSASU

50€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat

hurrengo erosketarako.

## TEXARTU

IRUNEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

## CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA  
ALTSASU

50 euroko erosketetan etxeko produktoa doan

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## IKER KIROLAK

ALTSASU

50€-tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilizteko.

## SAKANA

# Bigarrenenez langabeziak behera

59 langabe gutxiago zeuden apirila akaberan, 1.949 guztira

Martxoan eten zuen langabeziak gorako bidea eta joera hori apirillean berretsi da, langabetu kopurua 2.000tik jaitsiz. Generoari dagokionez, gizonezkoak 962 dira (%49,36, aurreko hilean baino 53 gutxiago). Emakumezko langabeak, berriz, 987 dira (%50,64, 5 gutxiago).

Adinari dagokionez, langabetu gehienek 25 eta 44 urte artekoak dira: 922 (%47,31; aurreko hile-

Langabezia udalerrika		
Udalerrria	Guztira	Aldea
Altsasu	971	-15
Arakil	87	-1
Arbizu	73	-2
Arruazu	3	0
Bakaiku	20	-1
Ergoiena	15	2
Etxarri Aranatz	190	-22
Irañeta	6	-2
Irurtzun	220	13
Iturmendi	14	-1
Lakuntza	100	-9
Olatzagutia	130	-14
Uharteko Arakil	57	-6
Urdiain	39	0
Ziordia	24	-1
<b>Guztira</b>	<b>1.949</b>	<b>-59</b>

an baino 47 gutxiago). Lan bila dau- den 45 urtetik gorakoak 808 sakan-



Garraioko langilea karga hartzeko prest.

dar dira (%41,46; 7 gutxiago). 25 urte baino gutxiago duten eta enplegu bulegoan izena emana duten 219 sakandar daude (%11,24; 5 gutxiago).

Sektoreei dagokionez, langileen %52,18 zerbitzuan aritzeko prest dago (1.017; aurreko hilean baino 2 gehiago). Industrian lan egin nahi lukete langabeen %33,15 (646; 49 gutxiago). %8,06 prest dago erai-kuntza arloan aritzeko (157; 3 gutxiago). Lehen sektoreak, berriz, eskaeren %1,74 jaso du (34; 3 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabilzanak %4,87 dira (95; 6 gutxiago).



## Plazak presoan eskubideen aldeko bozgorailu

Sakanako 10 herrietan mobilizazioak izanen dira

Herrira mugimenduak ilbeltza- ren 12an Bilbon eta azaroaren 10ean Baionan jendetza elkartu zuen. Erantzun zabala izan zuten bi mobilizazio haietan euskal presoan eskubideak aldarrikatu ziren. Herrirak bihar herrietako plazak betetzera deitu du espetxe politikaren erabateko aldaketa eskatzeko. Neguko bi hitzorduetan erakutsitako adostasun zabala Euskal Herriko herri, auzo eta hiriburuetara eraman nahi ditu.

Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea leloa izanen dute plazetako mobilizazioek. Espainiako Gobernuari euskal jendartearen gehiengoren borondatea entzuteko deia izan nahi du bihar: “gatazkaren konponbidean pausok emateko garaia, salbuespen egoerak gainditzeko garaia” dela esan nahi zaio. Gobernuaren “jarrera itxia” salatu eta “egoera



Presoen eskubideen aldeko aldarrikapenez beteko dira plazak.

luzatzeak sufrimendua areagotzea besterik” ez duela ekartzen nabarmenduko da plazetan. Herriratik esan dutenez, “gatazka eta giza eskubideen urraketetan tema-

ztea ez du inongo zentzurik”. Ekitaldi horietan parte hartzeko deialdia egin du Herrirak. Hainbat alderdik eta gizarte eragilek bat egin dute ekimenarekin.

### Herriraren mobilizazioak

Irurtzun

**12:30ean** Jokoak, txalaparta, trikitilariak eta kontzentrazioa plazaan.

**Uharteko Arakil**  
Kontzentrazioa

**Lakuntza**  
20:00etan Kontzentrazioa.

**Arbizu**

**11:00etan** Bizikleta martxa.

**11:15ean** Haur jolasak.

**12:00etatik 13:30era** Herri kirolak.

**13:30ean** Triki pintxo poteoa.

**15:00etan** Herri bazkaria.

**17:30ean** Karta jokoak.

**20:00etan** Manifestazioa.

**21:00etan** Bertso-abesti bat plazaan.

**23:00etan** Kontzertua Argi Bidean: Nafarroa 1512.

**Etxarri Aranatz**

**12:30ean** Elkarretaratzea.

**Bakaiku**

**12:30ean** Mosaiko erraldoia plazaan.

**Urdiain**

**12:00etan** Giro Musikatua. Kontzentrazioa.

**Altsasu**

**19:00etan** Kalejira musikatua. Ondoren auzatea eta argazkia.

**Olatzagutia**

**19:30ean** Kontzentrazioa. Pintxo-potea. Argazki erraldoia.

**Ziordia**

**13:00etan** Kontzentrazioa.



## Basogintza garai bateko itsasontzien abiapuntua

Bihar, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranatzko udaletxeko estalopetik ibilaldia

Egurrezko itsasontziak egiteko beharrezkoak ziren basoak. Eta haiek egoki kudeatuta egotea. Garai bateko baso kudeaketaren arrastoak gelditzen dira gurean. Eta kudeaketa horren berri zuzena izateko aukera izanen da bihar Etxarri Aranatz. Albaola itsas kultur erakundeko kideek itsasontziak egiteko zer nolako zuhaitzak erabiltzen ziren eta halakoak lortzeko basoa nola kudeatzen zen azalduko dute, ordu eta erdi iraunen duen ibilaldian.

Jakina denez, garagarrietik

aurrera Sakanako 200 zuhaitz erabiliko ditu Albaola elkarteak 1.563ko San Joan baleontziaren errepika egiteko. 22 metro luze, 7,5 metro zabal eta 200 tonako pisua izanen du. Ontziola eta itsasontzia egiteko erabiliko diren lehengaiak batuko dituen ibilaldia ere sortuko da, bisitariak Sakanako basoetara ekarriko dutena.

### Erakusketa Irurtzunen

Egitasmo horrekin lotuta, Albaola eta Mank-ek erakusketa prestatu dute. Sakanako basoetako zurak itsasontzi bihurtu arteko bidea ezagutzeko aukera ematen du erakusketak. Hainbat agiri eta bitxi-



Ontzigintzarako basoaren kudeaketa nola egiten zen ezagutuko dute bihar.

keria ikusteko aukera ere ematen du. Erakusketa Irurtzongo liburutegiaren beheko solairuan izanen

da ikusgai hilaren 26ra arte. Astez 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.



## Osasun duinaren aldeko eskubidea aldarrikatuz

Sasoia elkarteak hilabete honetan murrizketek jabilatu eta pentsiodunen osasunean duen eragina salatu nahi du. Gobernuak osasuna, dependentzia eta geriatría arloan hartutako neurriak hainbat pertsonen bizitza arriskuan jartzen duela salatu du Sasoiak. Asteartean, Irurtzongo azokan 45 bat pertsona bildu ziren osasun duin baterako eskubidea aldarrikatzeko. Heldu den asteazkenean, 11:00etan, Altsasuko azokan zabalduko dute aldarrikapena eta hileko azken astelehenean, 27an Etxarri Aranatzko azokan izanen dira Sasoiko kideak osasun duinerako eskubidea aldarrikatzen.

# BATBIRAL:4U

EUSKAL  
KULTURAREN  
NAFARROAKO  
ZIRKUITUA  
2013



## LINGUA NABAJORUM

Maiatzak 24  
22:00  
Etxarri Aranazko  
Kultur Etxea

Antolatzailea





**topagunea**  
euskara elkarteen  
federazioa

Babesle Nagusia





Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza furtua: Europa landa eremuetan inbertitzen

Babesleak



Laguntzaileak



## &gt;&gt; Irurtzun

## Igerilekuetan konponketak egitea erabaki dute irurtzundarrek

Udalak 20.000 euro bideratuko ditu lehen solairuko aldagelak eraberritzeko eta behekoan haurrek, gurasoek eta mugikortasun murrizta dutenak erabiltzeko aldagelak egiten dira

Aurrekontu Parte-hartzaileen taldeak lau lan proposamen aurkeztu zizkien irurtzundarrei eta igerilekuan lan horiek eginda oztopo arkitektonikoak kentzeko egitasmoak jaso du babes gehien. 359 bozetatik 150. Atakondoako eskolako aldagelak aldatzearen

alde 86 irurtzundar agertu ziren, 64 babes lortu zituen musika eskolako leihoak eta balkoiak aldatzea, euria jasotzeko hodi berriak, eraikuntzaren kanpoko aldea margotzea eta ate nagusia aldatzeko egitasmoak. Azkenik, herrian eta bere inguruan txirindula ibilbide bat egiteko egitasmoaren alde 52 irurtzundar azaldu ziren.

Hirugarren urtez erabaki dute irurtzundarrek udalaren aurre-

kontu baten zati bat zertara bideratu. Duela bi urte Larraun ibaia- ren inguruan eta Biaizpe aisialdirako egokitu zen. Joan den urtean, berriz, espaloiak eta seinaleak errespetatzeko kanpaina jarri zen martxan. Hala, aldapan dau den espaloietan barandak jarri dira, baita autoak espaloie gainera ez igotzeko elementuak ere. Horrekin batera, kiroldegi ondo- ko aparkalekua egokitu da eta eskolara ikasleak sartu eta ate-



Ongi pasatzeko azpiegiturak behar bezala jarriko dituzte.

ra baino ordu erdi lehenago ibilgailuen pasa mugatu da. Azken

hori herri barruan autoa gutxiago erabiltzea sustatzeko.

## &gt;&gt;

## Baikapek makinaria saldu du



Langileek euren lan arropak protesta gisa zintzilikatu dituzte aste honetan.

Inasa erosten interesa zuen atzerriko inbertitzaile bat bazegoen. Enpresaren hartzekodunen lehiaketan zegoela bazekien inbertitzaileak. Horregatik, enpresaren egoera gainbegiratzeko zuzendu zuten Sindicatura talde administratzaileari zuzendu zitzaion apirilaren 30ean Inasa erosi nahi zuela azalduz. Sindicatura- tikerantzuna: "sentitzen dugu, baina berandu iritsi zarete".

Gezurra zen. Izan ere, Inasako makinariaren zati baten salmenta astelehenean sinatu baitzen Bilbon. Horretarako, Inasako egungo jabearen Baikap-en (Bavaria Industrial Kapital AG) abokatuak asteburuan lanean izan ziren. Astelehenean despeditu zen salmentari alegazioak aurkezteko epea. Beraz, Inasa ixteko borondatea besterik ez zegoen salmenta ixteko presa horren atzean.

Bridgnorth Aluminium Limited enpresa ingelesak eskuratu du lote hori 3,1 milioi eurotan. Irango Razan Saafek, berriz, 1,3 milioi euroko balioa duen lotea. Eta saltzeko falta den makinariaren %20an 7 enpresek dute interesa. Haren balioa 1,2 milioi euro da. Salmentak Netbit konpainiaren bidez egin dira. Makinaria guztia 5,6 milioitan salduko dute.

## Langileak

Bilbon egindako salmentan atzera egin zitekeen edo ez zalantzak izan ziren, abokatuak iritzi kontra-

rriak izan baitziren. Langile batzuk etsi egin zuten herenegun. Beste- ek atzo, 17:00etan, batzar irekia deitu dute lantegiaren atean. Gaur Lourdes Goikoetxearekin biltzen saiatuko dira. Haietako batek esan digunez, "makinak lantegian dau den bitartean aukerak daude".

Inasako langileek azken asteetan denbora irabazi eta inbertitzaile- ri aukera emateko lanean aritu izan dira. Gaur zen Iruñera etortzekoa eta Inasa biziberritzeko zuten egitasmoaren berri eman behar zion hartzekodun handiena den bankuari, Nafarroako Gobernuari eta epaile- ari. Ondoren, Baikapeko Santiago Gonzalez Berganzones eta hartzekodunen prozesuaz arduratu direnekin biltzekoak ziren.

Langile batek ziurtatu digunez, makinariaren salmentarekin hartzekodunek dirua galdu dute, inbertitzailearen aukera onuragarriago zen haiendako. Langile beraren esanetan borondate pixka bat izan balitz Inasaren etorki- zuna beste bat litzateke. Gonzalez eta Baikap Nafarroan pertsona non grata izendatzea ere eskatu dio Parlamentuari.

Egoera zein zen jakinda astele- hen goizetik Inasako langileak lan- tegiaren atean bildu ziren. Astele- henean bertan lehen batzarra egin zuten nondik nora jo aztertze- ko. Bi langile, Angel Cuevas eta Mikel Lekuona, gaua atean eman zuten. Inasa desegitearen kontra zeuden.

## Gobernuaren esku hartzea eskatu zuten Parlamentuak

Nafarroako Bozeramaileen Batzordeak astelehenean aho batez erabaki zuen Inasaren inguruan Nafarroako Gobernu- ari eskaera egitea. Inasara jardue- ra bueltatzeko Nafarroako Gobernuak "ukitutako alde guz- tiekin bitartekaritza ausarta eta ur- gentea" egitea eskatu dio Par- lamentuak. Sozialistek aurkez- tutako adierazpenak dio Irur- tungoa Sakanarako eta Nafa- rroarako erreferentziako en- presa izan dela.

## Inasaren historia laburra

1956-07-26 Huarte taldeak sor- tu zuen Inasa, Irurtzunen.

1962an Amerikako Estatu Batuetako Reynolds taldea akzio- dun egin zen.

1973an Reynolds taldeak ia kapital guztia eskuratu zuen.

1998an Reynolds-ek lamina- zioa VAW-i eta estrusioa Alco- ari saldu zion.

2002an Hidrok VAW enpresa erosi zuen.

2009-12-02 Hidrok Baikap sal- du zion lantegia.

## &gt;&gt; Egiarreta

## Hori arrautza!

9 cm luze eta 170 gramoko arrautza errun zuen ostiralean oilo batek

Jon Irañeta eta bere aitona Jose Francisco Irañeta 14 oilo goberna- tzen dituzte udaz geroztik. Eta ostiralean sorpresa ederra izan zuten oilategian arrautza izugarri handi bat opatuzutenean. Aitonak sekula ez zuen tamaina horre- ta- ko arrautzarik ikusi eta iloba bezain harrিতta gelditu zen hasie- ran. Igandean familia guztia bil- tzen denean erabakiko dute ha- rekin zer egin.

Añezkarko oilotegi batean ero-

si zituzten oiloak. Jonek gustuko du eta aitona aspaldi izan zuten eta bera da abereak gobernatzen erakutsi diona. Horrelako zerbait egitea "polita" dela esan digu 16 urte beteko dituen gazteak. Bere bizpahiru lagunek ere halako zale- tasuna dutela argitu digu. Larre batean itxitura bat prestatu zuten eta han dituzte oiloak, aske. Gau- ez, eraiki zuten etxola batean sartzen dituzte. Jatekoan ere misterio gutxi dagoela esan digu Jonek: "pentsua artoa eta gariarekin nahasirik ematen diegu".



## MOTZEAN

## Igandean santutegiko bidean

Arakildar eta irurtzundarrak etzi Ara- larko santutegiko bidea hartuko dute. Erromerian parte hartzen dutenek 13:00etan goia inguruaren irudi gur- tuko dute eta ondoren, 13:15ean, mezara joanen dira. Hura despeditu- takoan erromesek herri bazkaria izan- nen dute. 65 pertsonak (35 irurtzun- dar eta 30 arakildar) eman dute ize- na Aralarko santutegiko mahaira bazkaltzera esertzeko.

## Ikastolatik Bardeetara

Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastole- tako ikasle talde bat aurreko aste buka- era Tuteran eman zuten. Hego Eus- kal Herriko beste 11 ikastolekin bate- ra, kirola, elkarbizitza, hezkuntza eta euskara ardatz zuten jardueretan parte hartu zuten 425 ikasle. Oste- gun arratsaldean Tuterako Alde Zaha- rrean orientazio proba batean parte

hartu zuten. Hura despeditu ondo- ren, Argia ikastolan Hesian taldearen kontzertuarekin gozatzeko aukera izan zuten. Ostiralean, berriz, ikasleek Bar- deetan barna txirindulan ibili ziren. Natur parkea ezagutu ondoren, Yugo- ko ermita ondoan bazkari ederraz gozatu zuten.

## Erregeari buruzko lehiaketan 5 finalista

Zer da erregea zuretako? Galdera horri erantzunez, lehiaketa antola- tzen du urtero Fundación Institu- cional Españolak. 32. edizioan 21 ikastetxetako LHko 3-6, DBH1-2 eta hezkuntza bereziko 285 ikasle nafa- rrek parte hartu dute. Fiteroko San- dra Martinez Pinaren eskulana sari- tudue paimahaiak. 30 finalisten arte- an Altsasuko Sagrado Corazón ikastetxeko 5 ikasle daude: Veroni- ca Juliana Fernandez de Sousa, Lydia Marin Amigo, Jon Aldasoro Goikoetxea, Iris Ramos Alvarez eta Martin Ormazabal Aznarez.



» Etxarri Aranatz

# Herri galdeketa eskaria, erregistratuta

**Etxarri Aranazko Udalak 360 etxarriarrek egindako erabakitze eskubidearen eskaerari baiezkua eman dio. Barcinak 10 egun ditu eskaera Espainiako Gobernuan aurkezteko**

Ostiraleko udal pleno berezian Etxarri Aranazko Udalak autodeterminazio eskubideari buruzko herri kontsulta proposamena tramitatzea onartu zuen, Etxarri 2012+1 herri ekimenak sustatutakoa, Bildu eta NaBairen aldeko botoekin. PPko zinegotziak kontrako boza eman zuen. Etxarri 2012+1 ekimenak egindako sinadura bilketarekin bat eginez, 360 etxarriarrek eskatu zioten Udalarri autodeterminazio eskubideari buruzko herri kontsulta proposamena tramitatu dezala. Galdera ondokoa izango da: "Ados al zaudete Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?"

## 360 sinadura

Hainbat etxarriar presente zaudela eta zenbait komunikabide bertan zirela burutu zen ostiraleko pleno berezia. Etxarri 2012+1 ekimenak bere eskaeran azaldu zuenez, "zer ginen, zer garen eta etorkizunean zer izan nahi dugun izan dira gure ekimenen oinarriak. 2013an erabakitze eskubidea jarri nahi izan dugu etxarriarren eskura. Ariketa demokratiko bat; benetako demokrazian oinarri behar lukeen eskubidea praktikara eraman nahi dugu". Ekimenetik gaineratu zutenez, 27/2007 foru legeak dioen moduan udal erroldaren %10en sinadurak

behar zituzten eskaera udalera eramateko, Etxarriko errolda kontuan hartuta 200 sinadura, baina 360 sinadura lortu dituzte, babes zabalagoa, beraz. Eta nabarmendu nahi izan zuten "herritarren arteko harremanak hobetzeko asmoz bulkatu dutela herri galdeketa, iritzi guztien errespetuan oinarritzen direlako herritarren arteko harreman zuzenak".

## Bildu: "Erabakitze eskubidea, oinarritzkoa"

"Erabakitze eskubidea herrien oinarritzko giza-eskubidea da" nabarmendu zuen Bilduk. "Etxarriarrok, euskaldunok, badakigu eskubide hori berezkoa dugula. Euskaldunok nazio bat gara, eta nazio moduan jokatu nahi dugu gure etorkizunarekin. Gaur herrien determinazio liberako eskubidea aldarrikatzen dugu" adierazi zuten. "Bildutik argi dugu zer izan nahi dugun: Euskal Herria estatu independentea izatea nahi dugu, eta arrazoi asko ditugula horretarako: historikoak, kulturalak, linguistikoak, sozialak... " adierazi zuen Bilduko ordezkariak, eta horregatik guztiatik baiezkua eman ziotela Etxarri herri-galdeketa egiteari.

## Na Bai: "Herrien eskubidea da"

Na Bai herrien autodeterminazio printzipioa "balio unibertsaleko printzipioa dela" azaldu zuen. "Demokrazia eta askatasun faltak nazio aniztasuna duten herrialdeetan tentsioa eta gatzak sortzen ditu. Herrialde batek bere etorkizunari buruzko nazio mailako



Udala galdeketa baiezkua eman zion unea.

eztabaida baketsua egitea desberdintasunei aurre egiteko modu arrazional eta zibilizatua da" adierazi zuen Na Bai ko Arantxa Artiedak, Quebec eta Eskoziaren adibideak jarritz. Erreferendumak herritarren aurre gogoeta eskatzen duela gehitu zuen Na Bai, "eztabaida libre eta lasaia, herritar guztiak libreki hitz egin dezaten, iritzia eman, galdetu, ideiak argitu... ". Horregatik herri galdeketa aldeko boza eman zuten.

## PP kontra

Etxarriko PPko Antonio Extremara zinegotziak kontrako boza eman zuen. "Nafarroa Espainiako komunitatea da eta hala izaten jarraituko du. Herri kontsulta honek gutxirako balioko du eta Europak ere ez du onartuko" adierazi zuen. "Sakanak arazo

## Prozedura



Etxarriko udal ordezkariak asteazkenean erregistratu zuten herri galdeketa egiteko eskaeria Nafarroako Gobernuaren egoitzan. Yolanda Barcina presidentek 10 eguneko epea izango du aipatu eskaera Espainiako Gobernuari egiteko, eta Ministro Kontseiluak 5 eguneko epea erantzuna emateko. Legeak dio baimenena jasoz gero, baimena jasotzen duen egunetik aurrera alkatetzak 5 eguneko epea duela herri galdeketa egiteko.

larriagoak ditu, langabezia edo atez atekoa, eta auzo lotsa sentitzen dut" gaineratu zuen. Bildutik Eneka Maizek galdetu zion "ea nola izan zitekeen lotsa sentiarazten zuten herri baten ordezkaria".

Extremarari erantzunez, Maizek azaldu zuen "nazio bat gara eta etorkizunean hala izaten jarraitu nahi dugu. Gehiengo sozial, politikoak eta instituzionalak eskatzen duena aldarrikatzen dugu".

## Hirigintza batzordean parte hartzeko deia

Herriko hirigintza ereduaren inguruko inkestak jasotzen ari dira oraindik udaletxean, egon litezkeen akatsak detektatu eta etorkizuneko hirigintza planaren berrikuspenaren aurre lan gisa. Gainera, Etxarri Aranazko hirigintza ereduari buruzko tailerra ere antolatu zuen udale-

ko batzordeak. Bataren eta besteen bidez jasotzen diren ekarpenak aztertze bidez bilduko da Hirigintza Batzordea. Hala ere, Joxi Bakaikoa pozik dago gaia etxe guztietara iritsi delako eta hirigintzari buruz hitz egin delako etxarriarren artean. Batzordean parte hartzeko deia egin du.



Ikuskizuna ere izanen da.

## Haurrak nagusi

**Larunbatean, 10:30ean Etxarri Aranatz txikienei eskainitako eguna izanen dute**

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak, Mugaiperen eta Udalaren laguntzaz, Haurren Eguna antolatu du biharko. Egitaraua 10:30ean zabalduko da haurrendako presatatutako jokoekin. Eguerdian Bor-

detxe Abere Zirkoa izanen da plazan. Eta handik mugitu gabe, haurrendako herri bazkaria izanen da 13:30ean. Arratsaldean, 17:30etik aurrera, hurrek primeran pasako dute Irrien Lagunekin. Ane eta Piratekin parrandan ariko dira. Hura despedituta txikiendako auzatea izanen da plazan.

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Festetan ere eguneko ogia hemen!

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

## SAKANA

# Ministerioak REEren egitasmoa gelditzeko eskatu dute

**Sektore elektrikoaren 2014-2022 aldirako planifikazio berria egin arte geldiarazteko eskatu dute**

Red Electrica Española S.A. (REE) Deikaztelu eta Itsaso artean 400kV-ko linea egiteko egitasmoarekin aurrera jarraitzen du. Industria, Energia eta Turismo Ministerioan Ingurumen Inpaktu ikerketa eta exekuzio proiektua aurkeztu zituen herenegun. Goi tentsioko linea egitasmoaren kontra 216 udal eta kontzejuek agertu dira. Haiek asko larunbatean bildu ziren egitasmoaren kontra daudela

berresteko. Horregatik, Ministerioari egitasmoaren tramitazioa geldiarazteko eskatu diote.

Udaletako ordezkariak eskatu dute elektrizitate sektorearen 2014-2022 plangintza egina egon arte proiektua bertan behera uzteko. Alkateen iritziz, egitasmoa 2008ko plangintzan oinarrituta dago eta hura "guztiz zaharkituta dago, ekonomia urtero %3 haztea aurreikusen baitzuen". Ministerioak egungo errealitatean oinarritutako sektorearen planifikazioa eskatu ondoren, alkateek ziurtatu zuten

REE berak ere aitortzen duela egoera aldatu dela.

Udal eta kontzejuek "egintza burutuen politikaren aurrean babesgabe" sentitzen direla azaldu dute. Izan ere, planifikazio berria onartzen denerako 400 kV-eko linearen egitasmoa onartua egon daiteke. REEek berak linea Iberdrola edo Acciona enpresen interesengatik egiten duela ere aitortu die hautesiei. "Enpresen eskaerak herritarrek aukeratutako erakundeenak baino zilegitasun handiagoa dute?" galdetu dute alkateek.



Alkateek Altsasun berretsi zuten goi tentsioko linearen kontra daudela.

## Sakana

172 alkatek bat egin dute egitasmoa gelditzeko eskaerarekin. Horien artean daude egitasmoak ukitzen dituen ibarreko udalerrietako alkateak ere. Baita Errotz, Satrustegi eta Ihabarko kontzejuek

ere bat egin zuten larunbateko adierazpenarekin.

Bestalde, Leitza eta Altsasutik abiatutako 30 txirrindularik linearen kontrako martxan parte hartu zuten. Irurtzunen kontzentrazioa egin zuten hainbatekin batera.



AHT-ren kontra azken hilabeteetan egindako kontzentrazioetako bat.

# AHT-rik ez, momentuz

**Ekonomia krisiak egungo proiektua bertan behera uztea ekarri du. Hirugarren erraila jarriko da**

Sustapen kontseilari Luis Zarralukik ostiralean Parlamentuan jakinarazi zuenez, Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren (AHT) egungo proiektua ez da egingen. Nafarroako Gobernuak lanak hasi dituzenez, Castejon eta

Iruña artean AHT eraikitzeke lanekin segitu nahi du. Bestalde, Aragoi eta Euskal Autonomi Erkidegoarekin AHT bidez lotzeko asmoak bertan behera gelditu dira.

Horren ondorioz, Sakana zeharkatzen duen egungo trenbidea moldatu egingen da. Europako trenak pasa ahal izateko trenbidee-

tan, barneko aldean, beste errail bat jarriko dute. Guztira hiru errail lituzke, beraz, Sakana zeharkatzen duen trenbideak. Zaralukik, hala ere, ziurtatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin batera lanean segituko duela. Epe luzera Iruña eta euskal Y-aren arteko lotura Ezkio-Itsaso bidez egitea ez zuen baztertu.



# Israelekiko boikot kanpaina berretsi dute udalek

Nakba edo hondamendiaren eguna gogoratu eta itzultzeko eskubidea gogoratu zuten atzo palestinarrek. 1947ko azaroan Nazio Batuen Erakundeak Palestina historikoa zatitzea erabaki zuten. 1948ko apirilean milizia sionistek eta soldatu israeldarrek sarraskiak egin zituzten palestinarren lurretan eta Israelgo estatua aldarrikatu zuten.

Euskal Herria Palestina sareak deituta Sakanako hainbat udal ordezkari asteartean Arbizun bildu ziren. Palestinari elkartasuna adieraztearekin batera Israelekiko boikot, desinbertsio eta zigorraren (BDZ) kanpainarekin bat egiten dutela berretsi zuten udal horiek. Israelek palestinarren eskubideak urratzen dituen bitartean BDZ

kanpainari eutsiko diotela ziurtatu zuten udal ordezkariak. Horrenkin batera, udalaren esku dauden arlo guztietan Israeli boikot aktiboa egiteko konpromisoari eutsiko diote eta dei hori Sakanako gizarteari zabaldu zioten.

## Errefuxiatua

Ekitaldian Adel Abou Salem Libanon jaio eta bizi den errefuxiatu palestinarra izan zen. Palestinaren alde egindako giza eta politika elkartasuna eskertu eta haien garrantzia azpimarratu zuen. Israelekiko boikot kanpainaren arlo guztietan egitearen garrantzia azpimarratu zuen. Palestinaren eskubideak bermatu eta bizia errazteko Israeli presioa egiteko



Udal ordezkariak Arbizun bildu ziren Palestinari elkartasuna adierazteko.

garrantzia azpimarratu zuen.

Salemek 67ko mugetatik kanpo bizi diren errefuxiatuen egoe-

rari erreparatu nahi zion. "Libanon ezin ditugu 72 lan egin eta ondorioz langabezia handia dago

eta horrek errefuxiatu palestinarren %66 pobrezian bizitzea dakar. Ezin dugu etxerik izan ezta palestinarren erakunderik sortu". Bera bizi den errefuxiatu eremua 2 km karratukoa dela eta 72.000 pertsona bizi direla azaldu zuen.

## Sarea

Euskal Herria Palestina sarea alderdi sindikatu eta eragile internazionalistek sortu zuten. Palestinarekin elkartasuna lantzearekin batera, palestinarrek eskatutako Israelekiko BDZ kanpainari atxikimendua emateko. Palestinarekiko elkartasun astea antolatu du sareak aste honetan, larunbatean Elizondon egun osoko egitarauarekin despedituko dena.

## Altsasu

# Gazteek errepresioa eta polizia muntaiak salatu dituzte

**Bi emakume gazte polizien salaketengatik auzitegira deklaratzera joan behar izan dutela salatu dute**

Donostiako Aske Gunean atxilotu zuten emakume gazte altsasuarra atzo Donostiako Egiako auzitegian epailearen galderei erantzun zien, abokatua alboan zuela. Gazte altsasuarri 2 ertzaini osti-koak jotzea eta haiekin jarrera

oldarkorra izatea leporatu diote. Gertaeren inguruan galdetu zion epaileak. Orain auzia zabalduko duen edo ez aztertu beharko du.

Bestalde, beste emakume gazte altsasuar bat Iruñeko auzitegian deklaratzeko zela azaldu zuten. Foruzaingoak haren kontra salaketa jarri zuten kalean izandako gertakari batzuen harira.



Salaketa kalera eramane zuten gazteak.

## Arbizu / Etxarri Aranatz

# Dozena bat pintada ezabatu ditu gobernauak

Ostiral goizaldean Nafarroako Gobernuak bidalitako langileek 12 pintada ezabatu zituzten Arbizun eta Etxarri Aranatz. Ilbeltza hasieran beste 10 pintaketa gehiago ezabatu zituzten Nafarroako Gobernuak bi herrietan. Azaroan Nafarroako Gobernuak eta Gobernu Ordezkaritzak lankidetzatza-protokoloa izenpetu zuten eta

besteak beste "terrorismoa goratzen edo gorazarre egiten dioten" pintadak ezabatzea jasotzen da. Hitzarmen horri jarraiki aritu dira Sakanako bi herrietan. Hau da, Guardia Zibilak txostena egin, Ordezkaritzak udalei pintadak kentzeko hilabete eman eta kentzen ez bazituen Gobernuak ezabatzeko dituzten, kostuak udalei pasatuz.

## » Irurtzun

# ITBk gaur lehen saioa emanen du

Irurtzun Telebistaren (ITB) aurreneko emanaldia gaur arratsaldean (19:00ak aldera edo) ikusgai izanen da Aizpea euskara taldearen blogean. Irurtzuni buruzko 15 minutuko albiste batekin abiatuko du bere emanaldia egitasmo berriak. Baina ordura arte itxaron ezin duenak blogean saioaren aurkezpena ikusteko aukera du dagoeneko.

Kamera aurrean Martina (Lorena Arangoa) eta Lore (Aitziber Irugi) jarriko dira eta arlo teknikoaz Itziar Matxain eta Urko Mauduit arduratu dira. Kultur etxea telebista-plato bihurtu zuten eta hura egokitzen Aritz Viñas aritu zen. Mauduitek azaldu digenez, lan taldeak ateak zabalik ditu, bai egindako edukia jasotzeko, baita ITBn lanera

sartzera nahi dutenendako ere. Eskertu ere egingen dute.

## Iragarkiak

Saioak zein maiztasun izanen duen ez digute argitu, lan taldearen indarrak zehaztuko baitu. Hori bai, teknikariak azaldu digenez, saioaren ekoizpenak sortzen dituen gastuei aurre egiteko iragarle bila hasiko dira. Horrela saioa autofinantzatzea nahi dute.

ITB Aizpea euskara taldearen kezka baten ondorioz sortu da. Ikus-entzunezkoek gazteen artean duten garrantzia ikusita arlo horretan zerbait egitea bururatu zitzaion. Arlo horretan arituak ziren irurtzundarrekin bildu ondoren egin du aurrera egitasmoak.



ITBren aurrerapen saioan lau egileak ageri dira.

## SAKANA

# Gurs-en errepresaliatuak gogoan

Nafarroako Fusilatu, Eraildako Eta Desagertuen Senitartekoen Elkarte (AFFNA 36) ordezkariak larunbatean Gurs-era joan ziren eta kontzentrazio esparruan errepresaliatuak izan zirenak

gogoratzeko ekitaldia egin zuten. 60 kidez osatutako ordezkariak nafarrari Olorongo alkateak ere harrera egin zien. Kontzentrazio esparru horretan 1939 eta 1945 artean 22 sakandar izan ziren.

## » Olatzagutia

## Lore Azokako 9 postuak



Invernaderos Segura (Jose Maria Setien, Segura), Floristeria Tao (Maria Concepción Larraza, Iruñea), Urtinea Lorategia (Paco Arrospide, Usurbil), Mendi Lore (Amagoia Etxeberria, Bakaiku), Urretabizkaia lore denda (Aritz Urretabizkaia, Arama), Ilur Garden (Ernesto Alzola, Agurain), Taller Alivia (Maika Eras, Arbeiza. Aromaterapia), Gregorio Iribai (Logroño, barriketako loreontziak), El Bosquecito (Richard Diego, Gueñes, bonsaiak eta miniaturak).

# Lore eta landareen garaia

## Igandean Olatziko Lore eta Landareen 6. Azoka izanen da, 10:30etik aurrera

Udaberrian gaude eta iritsi da gure etxeak loreekin apaintzeko eta baratza prestatzen hasteko garaia. Olaztin mota guztiko loreak eta landareak erosteko aukera izango dugu igande goizean, Olatziko Lore eta Landareen 6. Azoka prestatu baitute. Goizeko 10:30etik 14:00etara gauzatuko da azoka, San Migel plazan, eta lore eta landareekin lan egiten duten 9 postu etorriko dira Olaztira. Euria eginez gero, Erburua kiroldegia hartuko du aipatu azoka. Urtetik urtera sendotzen doa azoka hau, eta olaztiar eta sakandar askok bertan egiten dituzte lore eta landareekin lotutako erosketak.

Loreak eta landareak erosteko

## Egitaraua

**10:30etik 14:00etara** Lore eta landareen azoka San Migel plazan (euria eginez gero, Erburua kiroldegian)  
**11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara** Lentzeria erakusketa Kultur Etxean.  
**12:00etatik 14:00etara:** Haurrendako tailerrak: Loreak landatzen eta sortzen, Sarasate plazan (euria eginez gero, Erburua kiroldegian)  
**19:00etan:** Erkuengo Ama Abesbatzaren Kontzertua Kultur Etxean.

aukera izateaz gain, etxeko txikiei zuzendutako loreei buruzko tailerra izanen da Sarasate plazan –euria egitekotan, Erburuan–. Helburua etxeko txikiei loreak landatu eta sortzeko grina piztea da. Ildo honetan, Olaztiko gaztetxoak lana egitetik datoz, ludotekako haurrak izan baitira azokaren kartela egiteko ardura izan dutenak.

## Lentzeria erakusketa

Azokaren egun berean, lentzeria erakusketa hartuko du Kultur Etxeak, goiz eta arratsaldean, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 19:00etara. Dena den erakusketa larunbatean mustuko dute, 18:00etatik 20:00etara. Lanak lentzeria ikastaroan parte hartzen duten Xordia eta Olaztiko emakumeek egin dituzte. Horrela, 16 emakume inguruk egindako lentzeria lan ederrak ikusteko aukera izango da.

Eguneko egitaraua borobiltzeko, Altsasuko Erkuengo Ama abesbatzak kontzertua eskainiko du arratsaldean.

# Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal dizugu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude?  
Idatzi [gertu@tokikom.com](mailto:gertu@tokikom.com)  
helbidera eta hitz egingo dugu!

Hirinet.net  
Berton  
Bilbo Hiria Irratia  
Prest!

Uk  
Ukberri.net  
Aikor  
Aikor.com  
Anboto  
Anboto.org

Goiena Papera  
Goiena.net  
Goiena telebista  
Pil-pilean  
Plaentxia.com  
Barren  
Elgoibarren.net  
Baleike  
Baleike.com

Beleixe irratia  
Erlo telebista  
Uztarria  
Uztarria.com  
Goierri telebista  
Galtzaundi  
Galtzaundi.com  
28 kanala  
Karkara  
Karkara.com  
Antxeta irratia

Hernaniko Kronika  
Kronika.net  
Noaua!  
Noaua.com  
Txintxarri  
Txintxarri.info  
Aiurri  
Aiurri.com

Ttipi-ttapa  
Ttipi.net  
Xaloe telebista  
Mailope  
Xorroxin irratia  
Guaixe  
Guaixe.net  
Euskal Herria Irratia

TOKIKOM

TOKIKO  
KOMUNIKABIDEEN  
BATERAGUNEA

## » Lakuntza

## Udalak zineko lanak eginen ditu

Gastua Espainiako Gobernuari pasako dio, lanen kostua berari baitoakio

Lakuntzako Udalak 2013rako aurrekontuak onartu ditu. Hartutako erabakien artean dago zineko lanak despeditzearena. Jakina denez, aipatu lanen ardura Espainiako Gobernuarena da, NaBaik 2007ko Espainiako aurrekontuan aurkeztutako emendakin bati onespina eman ziolako Gobernuak, baina obra bukatzeaz zegoenean lanak geldiarazi zituen joan den urteko garagarrean Espainiako Gobernuak, diru faltagatik. Ordutik geldirik dago zineko obra, ingurune urbanizazioa eta parkeko lanak. Besteak beste, zineak jubilatuen egoitza, San Saastin musika eskola, Elai Alai taldearen egoitza, kultur erabile-erendako erabilera anitzeko gela eta beste hartuko ditu.

Zineko lanak geldi daudela eta luze joko dutela ikusita, Lakuntzako Udalak erabaki du aurrean urbanizazioa dituela zine (100.850 euro) eta eskolen eta parkearen ingurunea ere (108.183 euro). Lanak udan egin nahi dira, hurrengo ikasturtea hasi baino lehen, urbanizazio lanek eskolako patioaren tarte bat hartzen dutelako. Udalaren diru-poltsaren arabera, pixkanaka-pixkanaka zineko barruko lanak eginen lirateke. Baina zineko eta haren urbanizazio lanen kostua ez du bere gain hartuko Lakuntzako Udalak. Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioari errekerimendu bat bidali dio, zineko lanak lehenbailehen egiteko eskatuz. Hala egiten ez badu, betearazte subsidiarioa aplikatuko duela azal-



Zinema hesiturik, eskolako patioaren zati bat hartzen du. ARTXIBOA

Inbertsioak	
Igerilekueetan hobekuntzak	10.000
Txorrotokotako errekararen garbiketara	5.782,85
Hilerrian hobekuntzak	10.000
Kattuka haur eskolaren obra bukaera	35.000
Parkea-Eskolaren urbanizazioa	108.183,31
Zinemaren inguruko urbanizazioa	100.850
Pantaila eta proiektorearen erosketa	2.000
Gatza botatzeko makinaren erosketa	3.829
Setoak mozteko tresna	700
Ibilgailuaren erosketa	8.000
Komunalean inbertsioa	10.575,8
Zabortearen itxieraren proiektuaren egokitzapena	605
<b>Guztira</b>	<b>295.520,74</b>

du dio Gobernuari Udalak; hau da, laneko fakturak aipatu ministerioari pasako dizkiotela.

**Aurrekontu parte hartzaileak** Herritarrei informazioa eta parte hartzea ahalbidetzeko asmoz, Lakuntzako Udalak aurrekontuen zirriborroaren aurkezpena egin zuen otsailean. Orduan behin behinean onartu, eta hilabeteko epea izan zuten lakuntzarrek alegazioak aurkezteko. Berriki onartu

## Aurrekontuak egiteko irizpideak

Lakuntzako Udaletik adierazi digutenez, udal aurrekontuak egiteko orduan hainbat irizpide hartu dituzte kontuan. Bate-tik, oinarriko eskubideen bermea, hau da, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako diru partidak ez murriztea. Bestetik, nazio eraikuntzarako proiektuak bulkatzeko partidak txertatu dituzte (Udalbiltza, Euskal Memoria, Gaindegia...). Hirugarrenik, udal autonomia eta eskumenen defentsa, eta, azkenik, informazioa, gardentasuna eta parte hartzea bulkatzea.

dituzte. 2013rako udal aurrekontua 1.080.727,31 eurokoa da. 785.811,57 euro gastu arruntei dagozkio eta 295.520,74 euro inbertsioetarako. +www.guaixe.net-en

## » Irurtzun

## Hondakin bilketari buruzko informazio kanpaina eginen da

Sei hilabete iraunen du eta bukaeran herri galdeketa eginen da

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria ezarriko du aurrean eta hura herri bakoitzaren beharretara egokitzeari da. Hondakin bilketa sistema berria nola ezarri aztertze-ko Irurtzango Udala atzo bildu zen eta luzamendu bat eskatzea adostu zuten.

Udalak adostutakoaren arabera sei hilabete gehiago egonen dira edukiontzia herriko kaleetan. Aldi berean, Mank-ek informazio kanpaina garatuko du sustatu nahi duen sistema mistoaren inguruan argibideak emateko. Gainera, hurrengo udal bilkuran herri galdeketa inguruan ariko da udala, data zehazteko. Akordioaren kopiak etxetara banatuko ditu udalak.

Sakanako gainontzeko herrietan egin duen moduan, Mank-ek

ahalik eta materia organiko gehien konposta bihurtzea nahi luke, herrietan kudeatuz bestelako kudeaketarik ordaindu beharko ezlitzatekeelako. Horren inguruko informazioa eta gehiago zabalduko du Mank-ek Irurtzunen. Gainera, auzo-konposta egiteko dozena bat etxola jartzea aurreikusiko dute.

## Sinadurak

Martxoko bi asteetan atez ateko hondakin bilketa sistemaren kontrako sinadurak jaso zituzten Irurtzunen. Sustatzaileek 700 herritarren baino gehiagoren sinadurak jaso zituzten. Baina nortasun agiriak falta zituztenez, baliagarriak 600 besterik ez ziren izan. Sinadura bilketa sustatu zutenetako batek Diario de Navarrari adierazi zionenez, Mank-en sistema "garestia da, pertzak zintzilik uzteak irudi txarra ematen du eta pribatutasuna urratzen du".

## » Olatzagutia

## Udala ordezkariaren eskaerak aztertzen ari da

Gobernuaren Ordezkaritzatik eskakizuna egin diote Olatzagutiko Udalarari: hilabeteko epean erregearen argazkia udaletxeko bilkura gelako lehentasunezko toki batean jartzea, legeak agindu bezala. Bestalde, Ordezkaritzatik ere bilkura gelan dagoen Angel Gurmindo Lizarragaren, Steinen argazkia kentzeko eskatu diote

Olatzagutiko Udalarari. Steinen argazkia han egotea terrorismoa goratzeko delitua ote den ikertzeko Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionalari txostena bidaliko diola ere jakinarazi du. Ordezkaritzaren oharrean behin eta berriaz aipatzen da Stein ETA-ko kidea zela, baina behin ere ez GALek hil zuela.

## » Etxarri Aranatz



Harrera egiteko prest.

## Etxarri Hortz Klinikari odontologia olistikoa oinarri

Lastailaren 2an zabaldu zituen atea Etxarri Hortz Klinikak. Bi odontologo eta laguntzaile batek lan egiten dute. Ohiko zerbitzuak emateaz gain, berezitasun bat daukate: odontologia olistikoa lantzen dute. Hau da, pertsona guztia, bere osotasunean, kontuan hartzen duen odontologia egiten dute. Odontologia mota horrekin

lotuta, Alzolak terapia neurala aplikatzen du. "Helburua da gure gorputzean ditugun blokeoak, nerbio sistemarenak, desblokeatzea, akupuntura antzeko ziztadaxo batzuen bidez". Bestalde, oso agresiboak ez diren materialak erabiltzen saiatzen dira. Kontentua dauke bezeroekin. "Gainera lana euskaraz egin dezakegu!"

## MOTZEAN

## Zuzendaritza berri du ANELEk

Asociación Navarra de Empresas Laborales-ek, ANELEk, ostiralean batzarra egin eta zuzendaritza berri zuzen. Ekonomia sozialeko enpresak biltzen dituen elkarte burua berria Tafallako Fagor Ederlan-eko Ignacio Ugalde izanen da, Luis Mari Gallori lekukoa hartuta. ANELEk

165 enpresa biltzen ditu eta haie-tatik bost sakandarrak dira: Sakanako Kooperatiba, Lakuntza Kalor Group, Esekí, Aldakin eta Altsasuko Kooperatiba.

## Lazaro Echeverriako langileak epaitegien zain

Mugagabeko greban 72 egun egin dituzte

Greba eskubidearen kontra egite-

agatik enpresa auzitegiaren salatu ondoren, handik etorriko diren albisteen zain daude Lazaro Echeverriako langileak. Martxo hasieratik daude greban langileak. Mugagabeko greba hasi zuten 6 lankide kaleratzeagatik eta lan baldintzen okertzeagatik protestatzeko. Enpresak Altsasun eta Ziordian dituen lan zentroen aurrean protesta egiten dute egunero eta asteazkeneko, 11:30etik aurrera, Altsasuko azokan.

**SARABE TXOKOA**

**DASTAKETA**  
maiatzak 18, larunbata, 11:00-13:00

Ardi esnezko kroketa  
Letxe fritak  
Krepak  
Ardi eta moxalen txorizoa  
Asto saltxitxoia

948 564 467 / 659 800 912  
San Juan kalea 9 - Altsasu  
sarabexokoa@gmail.com

Zatuz!

Iturgintza  
Berogintza  
eta Gas

**PEIO**

659 286 344



Gazteak dantzan. UTZITAKOA

## Gazteendako eskaintza zabala

Gzt2ast programak asteburu honean segida izanen du Intxostia-punta gazte gunean. 12 urtetik gorako gazteek gaurtik domekara bitarteko arratsaldeetan hainbat jarduerekin gozatzeko aukera izanen dute, Altsasuko Udalaran Gazteria Sailak antolatutako programazioaren barruan.

### Egitaraua

**>> Maiatzak 17, ostirala**  
**17:30etik 19:30era** Dantza maratoia.  
**18:00etatik 20:00etara** Sukaldaritzako tailerra.  
**20:00etan** Uraren festa.

**>> Maiatzak 18, larunbata**  
**18:00etan** Mini-motorren lasterketa  
**21:00etan** Afaria.  
**21:45etik 00:00etara** Youssef eta Arreboteren kontzertuak.

**>> Maiatzak 19, domeka**  
**17:30etik 19:30era** Henna tailerra  
**19:00etan** Mahai-futbol txapelketa.



Lisboara joandako lagun taldea. Behean, Lisboan saritutako bi argazki.

## Erakusketako inauteria

Altsasu eta bertako inauteria nazioartean ezagutzera emateko lanean jarraitzen du Inauteri batzordeak. Ostegun gauean Lisboarako bidea hartu zuten 20 kidek. Hirugarren aldia da altsasuarrek Portugalgo hiriburuko inauterien segizioan parte hartzen dutena. Aurten Europako beste 31 herrietako ordezkariak bildu ziren. Ostiralean Rossio plaza ezagunean Altsasuko ihote segizioak bertako inauteria nola zen antzeztu zuen. Larunbatean, berriz, bi ordu iraun zituen Lisboan barnako kalejira batean parte hartu zuten.

Altsasuarrek Bulgariako Pernik-eko lagunak agurtzeko aukera izan zuten. Horretaz gain, hurrengo irteerak lotzeko aukera izan zuten. Uztailean Xixonera joanen dira eta udazkenean Coimbra.

### Argazkitan

Kalejira hori baliatuz argazki lehiaketa antolatzen da. Joan den urteko lehiaketako hiru sariren gaia Altsasuko inauteria da. Lehen argazki sarituan Ramon Paniagua



agertzen da, sardan eskuak dituela, begira. Bigarren saria Jose Javier Agirrebengoari egindako argazkia da. Eta, azkenik, publikoaren saria golda eramaten duten momotxorroen eta itzainaren argazkiak eskuratu zuen.

### >> Altsasu

## Gutizi txikiak tabernetan dastagai

Gaurtik domekara Pintxo Astea antolatu dute 6 taberneek, 19:00etatik 22:00etara

Xurrut, Altsasuko tabernen elkarteak pintxo astea antolatu du. Dozena erdi taberneek beste horren beste pintxo berezi prestatu dituzte egun hauetarako. Miniaturazko sukaldaritzak elaboratua, kalitatezko produktuekin egina, eskainiko dute Xurruteko kideek Pintxo Astea. Gainera, gutizia txikitxo horietako bat dastatzen duenak zuzenean sariak lortzeko aukera izanen du: aforiak, edariak eta beste. Gainera, pilotako eskuz binakako txapelketako finalerako bi sarrera zozketatuko dituzte.

### Sei pintxoak

Urtzin muskuiluz betetako tutuxoa, zainzuri apar eta orburu txiparekin dastatzeko aukera izanen da. Lurrazpin pintxo beganoa sortu dute: borraja tenpura kurruskaria kanela eta azukre beltzez gla-



Ohikoaz kanpoko pintxo eskaintza izanen da sei tabernetan.

seatuta, algarrobo krema, meda eta laranjondo-lore saltsa eta txokolate, bainila eta yogur izozkiekin. Xumek barazkitxoak bakailao, patata eta tomate mermeladaz lagunduta eskainiko ditu. Koxkak, berriz, bere bezeroei barazki eta perretxiko tartaleta gainean iberikoko presa milorria eskainiko die.

Gautxorik triptiko bat eskainiko die bere bezeroei plater berean. Alde batetik, dilista gorrien

krema curry eta urdaiazpiko kurruskariarekin. Bestetik, foie yogurta Pedro Ximenez gelatinarekin eta, azkenik, txokolateen trufa sorpresarekin. Arkangoako pintxoak Sakanakozenbait herri-tan hilabete hasieran zutitu diren maiatzaren itxura du. Ogizko zuhaitzaren oinean txahal isatsa barazki eta txokolate mingotseko saltsan dago. Guztia panadera patata, indaba berde, foie bloka eta porru-ernamuinez lagunduta.



## Apeadero azpiko zorua konponduta

Makina bat su barrikadek asfalto erretzearen ondorioz apeadero zubi azpiko zorua zuloz bete zegoen. Apirilaren azken astean eta aurrekoan udaleko langileek hura jaso eta porlanezko zoru berria jarri dute. Lanak iraun



Udaleko langileak lanean.

duten bitartean Altsasura mende-baldeko bi sarreretatik sartu beha-

rra zegoen. Hala egin ez duten hainbat gidarik isuna jaso dute.

# Udaberriko argazki lehiaketa

## FLORES

arkitektura



948 563 317  
jflores25@terra.es

Iortia plaza 1-1  
ALTSASU

www.arquitecturajavierflores.com

>> Saria:

SAVÁN

informatikak eskaintako liburu digitala



Savan  
INFORMATICA  
www.savan.es

**ADI, oinarri berriak:**

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira.** Argazkiari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira irusgai.

# Buruhausterik ez, jo bide zuzenera!



**Guaixe**  
**KOMUNIKAZIOA**  
diseinua & inpresioa

948 564 275 / [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net) / [guaixekomunikazioa.blogspot.com](http://guaixekomunikazioa.blogspot.com)

## » Altsasu

# Udalak arlo guztietan eskaintza zabala egin du

**Udako kirol, udan bateratuz, gazteria, musika eskola eta kirol eskoletan izena emateko epea astelehenean zabalduko da. 012 telefonoaren, [www.alsasua.net](http://www.alsasua.net) eta kirol zerbitzuan eman daiteke izena**

Altsasuk duen jarduera aberatsa herritarren esku jarri du udalak, bateratuta. Horretarako, Altsasuko Udalaren sail ezberdinen eskaintza guztiak koordinatu eta elkartu dituzte, adin eta gustu guztietarako eskaintza zabala etxetara banatu den liburuxka batean bilduz. Halaxe azaldu zuen aurkezpenean Ruben Imaz zinegotziak.

Udako jarduerak aparte, Altsasuko Udalaren gainontzeko jarduerak lastailaren 1etik maiatzaren 31ra arte izanen dira, kirol eskolekin adostuta. Hala ere, Imazek herritarrek matrikularen ezeztazaren inguruan ohartarazi

zituen: "lastailaren 15a baino lehen ez bada baja ematen matrikula guztia kobratuko da". Kuotak, bestalde, bi zatitan ordaindu beharko dira, bata irailean, azaroan bestea. Horretarako 012ra hots egin eta bankuko txartelaren zenbakia eman beharko da.

## Inor kanpoan ez gelditzeko

Eskaintza bateratzearekin batera, udalak errentaren arabera zerbitzu horientatik ordaintzeko lau tarte finkatu ditu. Imazek esan zuenez, "beste herri batzuetan esperientzia positiboa izan da, baita Txirinbulo haur eskolan ere". Udalaren eskaintza altsasuar guztien eskura egotea nahi dute horrela. Neurriak teknikarien eta udalbatzaren aho-bateko adostasuna duela azpimarratu zuen.



Udal arduradunak eta teknikariak eskaintzaren aurkezpenean.

Adostutakoaren arabera 4.000 euro arteko errenta dutenak egungo matrikulan %40ko hoberia izanen dute. 7.500 euro arteko errenta duten familiendako %20 hoberia aurreikusi da. 7.500 eta 15.000 euro bitarteko errenta dutenak egun ordaintzen dutena ordaindu-

ko dute. 15.000 eurotik gorakoei, berriz, matrikula %25 igoko zaie. Hobariak baliatu nahi dutenek garilaren 1etik 19ra errenta aitorenaren fotokopia eraman beharko dute kirol bulegoan. Dokumentazioa aurkezten ez dutenei azken tarte aplikatuko zaie.

## 1.630 bazkide

Atabok maiatzean zituen bazkideak. Agorriean 1.758 ziren. "Sakanako egoera ikusita jendea etortzen segitzea positiboki" baloratu zuen Asun Fernandez de Garaialdek, Ataboko buruak. Joan den Ataboko jardueretan 654 pertsonen izena eman zutela jakinarazi zuen. Aurreko urtean bezala, Ataboko bazkideek Dantzalekuko igerilekua dohainik erabiltzeko aukera izanen dutela eta udako jardueretan hobariak izanen dituztela gaineratu zuen. "Lanean jarraituko dugu gero eta



jarduera gehiago eskaintzeko", azaldu zuen Fernandez de Garaialdek. Aurreratu zuenez, osasuna eta kirola lantzen duen egitasmoa dute buruan. Azkenik, Ataboko bazkideei eskerrak eman zien. Horrekin batera, bazkide egiteko kanpaina martxan dagoela gogoratu zuen.

## Udan bateratuz programa

Izendapen hori hartu dute orain arte egiten ziren hainbat jarduerak. Jaione Iraola berdintasun teknikariak azaldu zuenez, lana, familia eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna errazteko asmoz prestatu dute programa. Kangu ludotekarekin batera, ingurune atsegin batekaini eta euskararen erabilera bulkatze du helburu Udan bateratuz programazioak.

3 eta 12 urte duten haurrez arduratzeko garagarriaren 21ean eta 24tik 28ra haurrek ludotekan pri-

meran pasatzeko aukera izanen dute. Goizeko ordutegia izanen du. Garilean eta agorriean (bi hamabostalditan banatuta) adin tarte horretako haurrendako Udan Euskaraz izanen da. Kirolan itza jardueran izena eman duten haurrek aukera izanen dute bi jarduerak koordinatzeko. Gainera, garilean 12 eta 35 urte arteko ezgaitasuna duten pertsonendako eskaintza ere badu udalak. Jarduera horietan familia bateko bi kide baino gehiago ariko badira hobariak eskuratzeko aukera izanen da. Baina horretarako udaletxean eskaera aurkeztu beharko da.

## Jarduerak

### Udako kirol jarduerak

16 urtera arte: igeriketa, arku jaurtiketa, kirol-anitza, gaur egungo dantzak, multiabentura.

16 urtetik gora: Arku jaurtiketa, aquagym, igeriketa, indoor zikloa, soinketa leuna, sabel dantza, aero dance eta futbol 7 txapelketa.

### Gazteria zerbitzua udan

Batukada, gorputz espresioa, orientazioa naturan, Ur festa goxoa, udako gaua izarrekin eta udako zineman izozki banaketa.

### Kirol eskolen eskaintza

Yoseikan budo, taekwondo, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, areto futbola, futbol 7, zelai futbola, atletismoa, pilota, tenisa, irristaketa eta multikirola.

## Musika ikasketak

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan ikasketak ofizialekin batera, ikasketak adar ez ofizialak sortu da. Hainbat herritarren eskaerari erantzunez sortu da eskaintza berria. Horren arabera, 16 urtetik gorako interesatuek izena emateko aukera izanen dute. Txistua, gaita, alboka, eskusoinua, trikitixa, klarineta, biolina, gitarra, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, tronboia, bombardinoia, tuba, saxofoia edo zeharkako txirula ikasteko aukera izanen da.

## Udala zinegotzi sozialistarik gabe

### Javier Donlok arrazoi pertsonalak argudiatuta kargua utzi du

Legegintzaldiaren erdialdera iritsi behar dugu aurki eta PSN Altsasuko Udalean zinegotzirik gabe dago. 2011ko udal hauteskundeetan bi zinegotzi postu lortu zituen. Baina joan den urteko ilbeltzaz geroztik bi aulkietatik bat hutsik zegoen Maria Jose Notario zerrenda-buruak dimisioa eman zuene-

tik. Javier Donlo zinegotziak bere karguan segitu zuen, baina azaroan gaixotasunagatik baja eskatu zuen. asteartean, azkenik, udal ardurak uztea erabaki zuen.

Altsasuko Talde Sozialistako idazkari Juan Miguel Perez Hurtadok esan digunez, herenegun PSNko antolakuntza idazkariarekin hitz egin zuen eta heldu den astean gaiak hitz egiteko elkartu-

ko dira. "Garbi dagoena da orain ez dugula udalean". Eta sozialisten presentziak erabakiak batera edo bestera egitea ekar dezake, izan ere, Bilduk 4 zinegotzi ditu, NaBaik 3 eta Aralarrek, IUk, UPNk eta PPK bana.

Notariok utzi zuenean sozialista altsasuarrek Iruñeko zuzendaritza estutu zuten hura ordezkatzeko. Baina alferrik izan zen.

Altsasu eta Iruñeko sozialisten arteko gaizki ulertuak hauteskunde zerrenda osatzerakoan sortu ziren. Nafarroako zuzendaritzak Altsasun prestatutako zerrenda atzera bota zuen, endogamikoa zelako, besteak beste. Sozialista altsasuarren kritikak piztu zituen erabakiak. PSNk sekula Altsasun lortu duen emaitzarik txarrena lortu zuen gainera.



Javier Donlo.

**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

**ALTSASU**

**OLAZTI** 948 468 755

**ETXARRI** 948 461 660



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



**Anttoni Aldasoro**  
**Milagros Artieda**  
**Jose Ramon Anso**  
**Jorge Ijurko**  
**Iñaki Orce**

Beti gogoan.

Zuen kintoak



**Javier Gonzalez Vega**

(Sergio, gure banatzailearen anaia)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

**bierrik**  
fundazioa



**Juan Aseginolaza Galarza**

Sinisten dut hartuko nauen lur hortatik landare berriak sortuko direla, landaretatik zuhaitzak zuhaitzetatik loreak loreetatik fruituak fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.

Paula, Arantxa, Izaskun eta Garbiñe



**Javier Vicente San Miguel**

Bapatean joan zara baina gurekin zaitugu.

Zure lagunak



**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net



**Iosu Anduaga Goñi**

III. urteurrena

Gogoan zaitugu.

**Miguel Cabeza Lopez**

Altsasuko Udaleko langile ohia

Mundua biltzen duen oihartzuna osatu nahi luke kantuak, nola milaka izarren argitasunak osatzen duen zerua.

Altsasuko Udala

**JAIOTZAK**

- Omya El Casmi El Oghi, apirilaren 25ean Olaztin.
- Ixone Adan Sevilla, maiatzaren 5ean Altsasun.
- Artzai Gelbentzu Goñi, maiatzaren 6an Irurtzunen.
- Markel Etxabarri Garro, maiatzaren 7an Uharte Arakilen.

**HERIOTZAK**

- Juan Aseginolaza Galarza, maiatzaren 13an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

ekainaren 7tik ekainaren 21era.

**FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak.** Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonómico.php>

**Lehiaketa**

**Irurtzunen festetako irudi bila.** Aurtengo festak iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko 23. edizio aukeratzeko lehiaketa antolatuta du Irurtzuno Udalak. Epea: maiatzaren 31 baino lehen. Bi maila izanen dira: 14 urte artekoak eta helduentzako. Informazio gehiago [www.irurtzun.es](http://www.irurtzun.es)

**Arbizuko Sanjuanetako kartel lehiaketa.** Edozeinek parte har dezake eta edozein teknika erabilita. A3 tamainako lanak, "San Juanak Arbizu 2013" testua agertu behar da. Saria: 200 €. Lanak garagarriaren lerako aurkeztu behar dira udaletxean. Informazio guztia [www.arbizu.info](http://www.arbizu.info) web orrian.

**Goitiurak Txunkain.** Altsasuko auzoko festak ekainaren 1ean ospatuko dira. Goitiuren lehiaketa irabazlearendako 100 euroko saria iragarri dute. Parte hartzera animatu dute.

"Pedro de Atarabia" XXIV literatur sarike-

ta. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

**Oharrak**

**Galtzagorri ludoteka Arbizu.** Izena emateko epea ekainaren 4arte udaletxean. Haur bat 80 €, bi 130 € eta hiru 150 €. Uztailaren 1etik 31ra.

**Odol emaleak.** Ekainaren 10ean Irurtzunen, arratsaldean.

**Haurraren errietoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

**Urdaingo eskolan negutegi.** bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

**Solasaldiak nederlanderaz.** Informazio gehiago [larrezbaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezbaldk@inigoaritz.com)

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**Lana/ Negozioak**

**LAN ESKAINTZA**

**Aisialdiko monitoreak behar ditugu.**  
**Arbizuko Udala.** Curriculumak aurkezteko epea udaletxean ekainaren 4a arte edo [info@arbizu.info](mailto:info@arbizu.info) helbidera bidali.

**Enjoy English koordinatzailea behar da.**

Ekainaren 26tik uztailaren 23ra bitarteko lan kontratua, 5 ordu eta erdiko lanaldia egunean. Ezinbestekoa ingeles eta euskara maila altua izatea. Aldez aurretik, bi egunetako formakuntza jaso behar da, bata maiatzak 31an eta bestea ekainak 25ean. Kurrikulumak [etxarri@ikastola.net](mailto:etxarri@ikastola.net) helbidera bidali edo ikastolako idazkaritzan utzi hurrengo asteazkenean,

maiatzak 22rako.

**Saldu / Erosi**

**EROSI**

**2. eskuko txirridula estatikoa erosiko nuke.** Interesatuek hots egin dezatela 699- 78 07 72 telefonora.

**Higiezinak**

**LOKALAK**

**ERRENTAN EMAN**

**Lizarragako elkartea alokatzen da.**

Lizarragako San Adrian festak direla eta, ekainaren 15ean, 16an eta 17an "Azi Iturri Txokoa" elkartea alokatuko dugu. Ekainaren 1ean arratsaldeko 18:00etan enkantea eginen dugu. Gutxieneko

alokairua 600 €koa izanen da.

**Ikastaroak**

**Birziklatze tailerra.** Irakaskuntza artistikoa eta sormen pentsamendua. Idoia Osés Perezek zuzendutako tailerra. Maiatzaren 4, 11 eta 25 eta ekainaren 1a, 10:00etatik-12:00etara (12-15 urtekoentzat), 12:15etatik-14:15etara (16 urtetik gorakoentzat). Doan. Tokia Lakuntzako Udala. Izen ematea 948- 57 60 15.

**AESeK ikastaro hauek antolatu ditu.**

"Elkarrizketak ingeleraz", 35 ordu, maiatzaren 29tik uztailaren 3ra; "Buruko mapak. Informazioaren antolaketa optimizatzearen erremintak", 15 ordu, ekainaren 6tik ekainaren 20ra; "Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu,



## TXIRRINDULARITZA

URTASUN OSATZE BIDEAN: Giroan izandako erorikoaz ongi osatzen ari da Pablo Urtasun, dagoeneko arrabolarekin baitago

lanean. Bestalde, afizionatuen Natxituako lasterketa Rural Kutxa talde sakandarreko Migel Angel Benitok irabazi zuen.

## kirola &gt;&gt;

## Txirrindularitza

# Sakana, pedalkadaz

BIHAR III. SAKANA BURUNDA TXIRRINDULARITZA MARTXA ANTOLATU DU BURUNDA KLUBAK, 124 KM-KO PROBA EZ LEHIAKORRA, ALTSASUN HASI ETA DESPEDITUKO DENA

Burunda Txirrindularitza Klubak III. Sakana Burunda txirrindularitza martxa prestatu du biharko, larunbaterako. Helburua Sakana ezagutaraztea eta txirrindularen egun ederra pasatzea da. Proba antolatzeko Rural Kutxa, Lacunza Calor Group, Altsasuko Udala eta hainbat komertzio eta erakunderen babesa jaso dute.

## 124 km eta 2.011 m desnibela

III. Sakana Burunda proba ez lehiakorra da. Bihar goizeko 8:30ean Altsasutik aterako dira txirrindulariak, Ziordiarantz. Han buelta hartuta Urbasako Altamira portua igoko dute, Etxarriraino joateko. Han Lizarragako Katea igo, Arbizutik jaitsi, Uhartarako Aralarko portua igo, Baraibartik Oderitzera jo eta Madotzeko por-

## Izena ematea

Aurrez izena emateko epea despeditu da. Bestela, egunean bertan galdetu daiteke, Gure Etxean, beti ere antolakuntzak jarritako 250 parte-hartzaileen muga gainditua ez badago.

[www.clubciclistaburunda.com](http://www.clubciclistaburunda.com)

Probaren informazio guztia, rutometroa barne.

tua jaitsiz, buelta hartu eta Altsasuraino jotzeko. 124 km-ko ibilbidea izanen da, 2.011 metroko desnibelarekin.

Antolakuntzak hiru hornidura gune prestatuko ditu ibilbidean barna. Antolatzaleek parte-hartzaileen esku jarriko dute



Iazko Burunda Sakanan Urbasan gora.

laguntza mekanikoa, ibilbide gutzian barna. Proba trafikoa zabalik dagoela gauzatuko da, San Migelgo igoera kronometratua izan ezik.

## San Migelgo igoera, kronometratua

Uhartarako (456,30 m) San Migelera (1216 m) bitarteko 9,4 km-ko igoera kronometratua izango da, proba ez lehiakorri salta eman nahian. Gehienezko maldak %18koa da. Lehen gizonetakoak eta lehen emakumeetakoak Momotxoarroaren irudia duen

trofeoa jasoko dute, eta baita ere 18-39 urte arteko lehen gizonetakoak, 18-29 urte arteko lehen emakumeetakoak, 40-59 urte arteko lehen gizonetakoak eta 30-39 urte arteko lehen emakumeetakoak. Duela bi urte Carlos Palaciosek ezarri zuen denbora onena (30:47).

## Opari lotea

Txirrindulariek opari sorta ederra jasoko dute: kamiseta teknikoa, Katealde pateak, Laket txistorra, Lacturalesnelitro bat, Enervit produktua (barrita, gatz mineral sobrea eta gela) eta botilatxoa.

## Botxa

## Iratxo Botxa Txapelketan izena ematea zabalik

Maiatzaren 23an edo 24an hasiko da Iratxo Botxa Txapelketa, taldekakoa. Txapelketa Iratxo elkarteko botxategian jokatu da, maiatza eta ekaina bitartean. Izena ematea zabalik dago eta parte hartu nahi duten taldeek maiatzaren 19a baino lehen eman behar dute izena Iratxo elkartean.

## Mendia

## Otxoa de Olza igandean gogoratuko dute Beriainen

Iñaki Otxoa de Olza mendizalea zenaren Sakanako lagunek, 2008ko maiatzaren 22an Annapurnan bizia galdu zuten mendizale iruindarra omenduko dute igandean Beriainen. Gogoan izanen dute ere Iñakiren erreskatean parte hartu zuten Alexei Bolotov mendizale errusiarrak, asteazkenean Everesten zendu zena. Unanatik atera eta Otxoa de Olzaren alde Beriaingo igoeran dagoen monolitoan lore eskaintza egingo dute, goizeko 11:00etan.

## Txirrindularitza

## Orain, Alpeak

Italiako Giroan Alpeko etapak datoz, mendi izugarri eta mitiko ez jositakoak: Sestriere (2035 m), Bardonecchia (1908m) eta Galibier ezaguna (2642m) tarteko. Txirrindulari indartsuenen egunak datoz. Nibali liderra da faborito nagusia, iazko garaile Hesjedalen porrotaren ostean, baina Evans, Uran eta Wigginsek berak ere zeresana emango dute.

Atzo esprinterrendako proposa zen etapa jokatu zen. Emaitza horien faltan, etapa hasieran Nibalik jarraitzen zuen lider sendo, Evans 41 segundora eta Skyko Uran eta Wiggins 2:04ra eta 2:05era zituela. Sakandarrei dagokienez, Egoi Martinezek sailkapenean



Egoi asteazkeneko ihesaldian.

gora egin zuen eta 28. azen, 18:12ra; Jorge Azanza 42.a, 36:57ra; eta Gorka Verdugo 72.a, 1:01:51ra.

"Egunero demostratzen ari gara gure taldea ongi dagoela, gogoekin eta borrokan. Giro honetan asko dugu oraindik esateko" azaldu du asteazkenean 7.a izan zen Egoi Martinezek. Bestalde, Movistarreko zuzendari Jose Luis Arrieta uhar-tearrapozik dago. Alex Dowsetekin etapa bat irabazi dute eta Beñat Intxaustik maglia arrosa jantzia izan zuen eta 9.a da.

## Areto futbola

## Triman, play offak zain

OSTIRALEAN INTER MOVISTARREN KONTRA LEHIATUKO DA, ANAITASUNAN

### Ohorezko mailako play offak. Final laurdenak:

- Triman Navarra Xota - Inter Movistar (gaur, ostiralean, 19:30ean, Iruñeko Anaitasunan)
- Bartzelona - Rios Renovables
- El Pozo Murcia - Santiago Futsal
- Caja Segovia - Umacon Zaragoza

Ohorezko mailako titulua lortzeko borroka, play offa, asteburuan hasiko da. Ohorezko mailako ligan lehen 8 postuetan sailkatu diren taldeak lehiatuko dira play offe-

tan: Bartzelona, El Pozo Murcia, Inter Movistar, Caja Segovia, Umacon Zaragoza, Irurtzungo Triman Navarra Xota, Santiago Futsal eta Tuterako Rios Renovables.

Play offetako final laurdenetako joaneko partidak asteburu honetan jokatu dira, itzulerako partidak maiatzaren 25ean, eta berdinketa hausteko 3. partidak jokatu behar izanez gero, maiatzaren 26an.

### Triman, talde ahaltsua soppresaz hartzera

Triman Navarra Xotaren arerioa, final laurdenetan, Inter Movistar

taldea izango da. Partida gaur jokatu dute, etxean, Iruñeko Anaitasuna pabilioian, 19:30ean.

Inter Movistar ligako oilarretako bat da, talde boteretsua, Trimanen aurrekontua ia hirukoizten duena eta arerio oso latza. Iazko play offetan Inter Movistarren kontra aritu zen ere Triman final laurdenetan, baina berdindu ondoren penaltietan hobe asmatu zuten madrildarrek. Ea aurten Trimane zortea alde duen.

### Sarrerak salgai

Gaur Anaitasunako txarteldegia zabalik egongo da 18:00etatik aurrera. Helduek 8 euro ordaindu behar dituzte, 10-17 urte bitarteko gazteek 3 euro eta 10 urtetik beherakoek sarrera dohainik izango dute. Bazkideek ez dute ordaindu behar.

**Kulturarekin on egin**

**Altsasun, 2013ko maiatzak 18 eta 25 eta ekainak 8**

**%15<sup>eko</sup> deskontua**  
afarian lortuako kultur sarrera erakutsita

## Tenisa



Argazkietan, Altsasuko Tenis Txapelketako finalistak: Jon Erdozia, Oier Gastesi, Xabier Claver, Aritz Martinez de Ibarreta, Irune Grados eta Andrea Aristu.



## Atletismoa



Javi Morenok txapela jantzi zuen.

## Javi Moreno azkarrena Errotxapean

Larunbatean I. Errotxapeako Kro-sa jokatu zen, 6,5 km-ko ibilbide polita, Alde Zaharra, Errotxapea eta Arga ibaiaren ingurune ederrak lotzen zituen. Javi Moreno altsasuarra lehena iritsi zen helmugara, Altsasura txapela ekarriz.

## Erdozia, Claver, Grados eta Cantero garaile Altsasuko Tenis Txapelketan

## Altsasuko Tenis Txapelketako finalak

**Kimuak:** Jon Erdoziak Oier Gastesiri irabazi zion, **6-4** eta **6-3**

**Gizonezkoak haurrak:** Xabier Claverrek Aritz Martinez de Ibarretari irabazi zion, **6-4** eta **7-6**

**Emakumezkoak haurrak:** Irune Gradosok Andrea Aristuri irabazi zion, **6-2**, **1-6** eta **6-0**

**Helduak:** Carlos Canterok Santi Crespori irabazi zion, **6-3** eta **6-4**

koan. Lau kategoriatan banatuta aritzen dira: kimuak, haurrak, kadeteak eta helduak, eta talde bakoitzak astero 2 orduko entrenamendua egiten du Altsasuko Mikel Donea Institutuko soinketa aretoan. Neskek eta mutilek aldi berean ikasten dute, ez dago sexuen arteko banaketarik.

Berriki Altsasuko Tenis Txapelketa jokatu da Olaberrian. "Altsasun ez dugu tenis pistarik eta horregatik Olaberrian jokatu ditugu txapelketako partidak. Urteko txapelketa da eta ikasleak gusturaz hartzen dute euren arteko lehia

hori" adierazi digu Richard Canterok. Altsasuko Tenis Rubor eskolako arduradunak gaineratu duenez, giro oso onean jokatu dute txapelketa. "Jokalari eta senitartekoendako hamaiketako prestatzen gauen, partida politizatuz gozatu dugu eta jokalariek txapelketaren urduritasun puntu hori zuten. Oso egun politak pasa ditugu" nabarmendu du.

Txapelketa kategoriaka jokatu da. Kimuen mailan 14 tenislari aritu dira, gizonezkoen haurren mailan 8, emakumezkoen haurren mailan 18, eta helduen

## www.tenisrubor.com

Altsasuko Tenis Eskolaren informazio guztia. Hurrengo ikasturtean ere lanean ariko da Altsasuko Tenis Rubor eskola, interesa dutenendako. Informazioa web gunean.

mailan 15. Richard Canterok tenis klaseak ematen ditu ere Olaberrian, eta bertako 3 ikaslek parte hartu dute altsasuarrekin batera. Apirilaren bukaeran aurreko fasea jokatu zen, eta hortik aurrera, astebururo-astebururo, kanporaketak eta finala. Tenislari bikainak ditugula argi geratu da. Zorionak guztiei.

Altsasuko Tenis Rubor eskolan 60 neska-mutiko aritzen dira, Richard Cantero monitorearen aginduetara. Canterok Iratxe Soriano monitorearen laguntza izaten du tenis klaseak ematera-

## Kirolak

## Txomin Nagorek 501 partida jokatu ditu profesional moduan

Txomin Nagore Arbizu futbolari irurtzundarrak (1974-08-26) profesional mailako 501. partida jokatu berri du Numantzia taldearekin, "500eko klubean" sartuz. Oso jokalaria gutxi daude horrenbeste partida jokatu dituztenak, eta hori ohore handia da irurtzundarra-rendako.

Osasunan trebatu zen Txomin Nagore. Egun, 2. mailan dabil Numantziarekin, eta taldeko kapitaina da. Goi mailan horrenbeste denbora egoteko argi du lan eta esfortzu asko egin behar dela. "Asko zaindu behar duzu, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere" adierazi du jokalaria nafarrak Diario de Noticias egunkarian.

Ia 39 urte dituenean, oraindik sasoi betean dago Txomin. "Fisikoki ongi sentitzen naiz eta egorak horrela jarraitzen badu futboleko jarraitu nahiko luke, beste denboraldi bat bada ere. Dena den,



Txomin Nagore.

## Nagoreren ibilbidea

Osasuna (1995-1997), Athletic Club (1997-1999), Numancia (1999-2001), Atletico de Madrid (2001-2003), Mallorca (2003-2004), Celta de Vigo (2004-2005), Levante (2005-2006) eta Numancia (2006-...).

argi dago mundu honetan guztiak duela iraungitze data" azpimarratu du jokalaria.

## Aritz Pellejero 59.a Iruñea Hiriko Maratoi Erdian

Sakandarrak 32. Iruñea Hiria Maratoi Erdian (21 km)

1.	Abdelhadi Habassa	1:06:55
59.	Aritz Pellejero	1:21:32
65.	Jose Ignacio Mikeo	1:21:44
233.	Jose Javier Beregaña	1:30:46
334.	Xabier Aierdi	1:33:44
412.	Francisco Jose Juango	1:35:45
458.	Jose Ramon Asiain	1:37:05
466.	Angel Tajuelo	1:37:17
813.	Oscar Alonso	1:49:09

Sakandarrak I. Iruñea Hiria Herri Lasterketan (10,8 km)

1.	Javier Nagore	33:49
10.	Sergio Garcia	39:25
47.	Sergio Ondarra	49:13
87.	Juan Antonio Palacios	52:26
92.	Xabier Aizpun	52:38
161.	Saray Garasa	56:18
250.	Amaia Berastegi	1:06:20

Igandean 32. Iruñea Hiriko Maratoi Erdia jokatu zen (21 km), Beste Iruñea klubak antolatuta. Proban parte hartu zuten 1011 korrikalarien artean Abdelhadi Habasa izan zen jauna eta jabe (1:06:55), Antonio Etxeberriari minutu pasa aterata (1:07:57). Lehen sakandarra Aritz Pellejero lakuntzarra izan zen, helmugara 59.a helduta (1:21:32). Emakumezkoetan Habasaren bikote Salima Charki nagusitu zen (1:16:36). Eta aurreko probari lotuta, eta distantzia laburragoan, I. Iruñea Hiria Herri Lasterketa jokatu zen (10,8 km). 266 korrikalarien artean Javier Nagore izan zen azkarrena (33:49), eta emakumezkoetan Ana Llorens (40:52). Sergio Garcia altsasuarra 10.a sailkatu zen (39:25).

## Somocurcio 79.a Martin Fiz Maratoian

Gasteizetik Martin Fiz Maratoia hartu zuen igandean (42,195 m). 552 korrikalarik parte hartu zuten eta Migel Beltranek irabazi zuen proba luzea (2:21:44). Martin Somocurcio altsasuarra lan ederra egin zuen, 79.a sailkatuz (3:07:09).

**15-19 maiatza**  
19:00-22:00  
sariak eta zozketak

Urtzi  
Xume  
Koxka  
Lurrazpi  
Gautxori  
Arkangoa

**PINTXO**  
2013 altsasu  
astea

## Triatloia



Urko Peñagarikano. ARTXIBOA

## Bi Urko Deba Itziar Xtreme Triatloian

Larunbatean V. Deba Itziar Xtreme Triatloia jokatu zen (750 m igeri-30 km bizikletan-5,2 km korrikan). 331 triatletek parte hartu zuten, eta Nicholas Kastelein izan zen azkarrena (1:19:56). Sakana Triatloi Taldeko bi Urko aritu ziren proban. Urko Berdud 46.a heldu zen helmugara (1:27:03), eta Urko Peñagarikano 88.a (1:30:11). Probako bigarren kade-te onena izan zen Peñagarikano.

## Kirolak

## Ioseba Fernandez, nafar onena areriorik gabe

Asteburuan Zirkuituko Nafarroako Irristaketa Txapelketa jokatu zen Antoniutti parkean, kimuen, haurren, gazteen, juniorren eta seniorren mailan. 180 irristalari inguru aritu ziren. Ioseba Fernandezek, munduko txapeldunak, dominak bata bestearen atzetik pilatu zituen senior mailan, iturmendiarrak ez baitu areriorik.

Senior mailako lasterketan Ioseba Fernandez (Amaya) bere taldekide Ander Lopezi eta Raul Vergarari (Lagunak) nagusitu zitzairen. 500 metro sprint modalitatean Fernandezek garaipena lortu zuen, Mikel Alzuetaren (Amaya) eta Ander Lopezen aurretik.



Fernandez, Iturmendiko omenaldian.

## Sakana Irristaketa Klubekoak, txukun



Sakana Irristaketa Klubeko irristalariak lan ona egin zuten. Tartean, gizonezkoen haurren mailan Unai Villalobos 3.a izan zen 500 m sprintean, Espainiako Txapelketarako sailkatuz. Eta Anne Lapuentek emakumezkoen kimuen mailan Espainiako Txapelketetan aritzeko txartela lotu zuen. Espainiako Txapelketak ekainaren 22an eta 23an jokatu dira Gijonen. Bestalde, larunbatean Txikien Ligako jardunaldia jokatu da Zangozan, goizeko 10:00etatik aurrera.

## Mendi lasterketa

## Iratiko mendi maratoni erdia Angel Arrietarendako

## Sakandarrak III. Erlaitz Aiako harrietan

1.	Aritz Egea	1:44:26
45.	Aritz Munarriz	2:09:47
50.	Alatz Agirre	2:10:47
73.	Mikel Berastegi	2:14:05
114.	Iraitz Senar	2:21:39
227.	David Oroz	3:37:29
229.	Javier Gonzalo	2:37:35
264.	Maite Beregaña	2:44:19
331.	David Irigoien	3:25:36



Angel Arrieta aldapan gora. ARTXIBOA

Uharte Arakilgo Aralar Mendi taldeko Angel Arrietak irabazi zuen igandean jokatuako Iratiko mendi maratoni erdia (21 km). 83 korrikalarik hartu zuten parte, eta uhartearrak 16 segundo atera zizkion Raul Rodari (1:45:51). Mendi korrikalari sakandarrek maila bikaina eman zuten. 8. postuan sartu zen Evaristo Noveleta irurtzundarra (1:57:25) eta 9.a izan zen Aralar Mendiko Patxi Albeniz (1:58:23). Jose Antonio Salgado veterano altsasuarrak ere lan ederra egin zuen, helmugara 20. postuan iritsiz (2:06:40). Josetxo Albizu 51.a sartu zen (2:29:54). Emakumezkoetan Leire Fernandez nagusitu zen (2:02:17), eta hirugarren postuan sailkatu zen Aran Larraña-

ga uhartearra. (2:26:08).

334 korrikalarik osatu zuten III. Erlaitz Aiako harriak mendi lasterketa, Irunen. Aritz Egea izan zen azkarrena (1:44:26). Aritz Munarriz etxarriarra izan zen lehen sakandarra, helmugara 45. postuan sartu eta gero.

## Sokatira

## NAFARROAKO 4X4 SOKATIRA TXAPELKETA

## Sakana, Andra Mari eta Beriain lehian

Larunbatean Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen Amaiurren. Emakumezkoetan (260 kilo) Sakana taldeko emakumeak eta Basaburua-Imotzekoak berdindu egin zuten, 3,5na puntu lortuz. Atzetik sailkatu ziren Berriozar eta Txantrea. Sailkapen orokorrean Sakana da lehena, 6,5 punturekin, Berriozarri puntu erdi aterata.

Eta kadeteen mailan (280 kilo) Berriozar A izan zen finena (5

puntu), Andra Mari ikastolari puntu bat atereaz. Atzetik sailkatu ziren Ultzama, Berriozar B eta Andra Mari ikastolatik sortutako Beriain taldea. Sailkapen orokorrean Andra Mari eta Berriozar Ak 9na puntu dituzte eta Beriain azkena da, 2 punturekin.

## Etzi Iruñean

Txapelketako 3. jardunaldia igandean jokatu da, Iruñeko Takeran, goizeko 11:30ean.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“GIZARTEAREN GARAPENEAN LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT.”

Alaitz Zabala, Biomaterialen ikerketa lerroko ikerlaria.



PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

BILBAO, Bilbao Lab • MAIATZAK 25

larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA • MAIATZAK 25 larunbata, 11:00

ARETXABAETA • MAIATZAK 25 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 25 larunbata, 10:30

Ate Irekiak ONLINE

EKAINAK 4 asteartea, 18:30

Goi Eskola Politeknikoa Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia

ARRASATE • EKAINAK 8 larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



## Pilota



Olaztiko San Migel txapelketako 2011ko txapelkun batzuk. ARTXIBOA

## Olaztiko San Migel Txapelketa abian

Asteburuan hasiko da Olaztiko XLII. San Migel Pilota Txapelketa, izen bereko elkarleak eta Sutegei taldeak elkarlanean antolatzen dutena. Batetik, kategoria txiki-koen txapelketa jokatu da, larunbat eta igande goizetan. Eta, bestetik, txapelketa herrikoia (1., 2. eta 3. mailak) eta afizionatuen mailako txapelketa egonen dira jokoan. Partida hauek ostiral gauean eta larunbat arratsaldetan

jokatuko dira, Olaztiko pilotalekuan. Helburua pilotazaletasuna sustatzea da, afizionatuen kategoriaz gain zaletu guztiei eta kategoria txiki-koei txapelketa batean aritzeko aukera ahalbideratuz.

Asteburu honetan San Migel txapelketa herrikoia abiatuko da, eta hurrengo asteburuan, aldiz, afizionatuen mailako torneoak. Jakina denez, txapelketako finalak Olaztiko Santa Ana festetan jokatuko dira.

### San Migel Txapelketa. 1. jardunaldia

Ostiralean, 21:00etan:

**3. maila:** Iñaki-Migel / Iñaki-Ibon

**2. maila:** Beñat-Aritz / Mendiluze-Vicario

**1. maila:** Murgiondo-Agirre / Ezkurdia-Arruti

Larunbatean, 18:30ean:

**3. maila:** Iñigo-Borja / Flores-Montesinos

**2. maila:** Barban-Pazku / Eduardo-Aritz

## Jaunarenak Buruz Burukotik kanpo utzi du Zabaleta

Buruz Burukorako dohai bikainak dituela erakutsi zuen Jon Jaunarena leitzarrak igandean Eibarren, iazko promesetako Buruz Buruko txapelkunak 22-12 irabazi baitzion egungo Binakako txapelketa den Jose Javier Zabaleta etxarrendarrari. Leitzarrak oso ongi atera zuen -11 tanto egin zituen sakez- eta errestoan bikain aritu zen, aurrelari batendako meritu handiko lana. Tantoa bukatzen arazo gehiago izan zituen. Etxarrendarrari, aldiz, alderantziz. Atzelaria izateko azkartasun asko erakutsi zuen Zabaletak, eta lehen koadroetan iritsi zen pilota guztiei ongi erantzun zien. Hala ere, eta atzelaria izateko, ez zen oso fin aritu errestoan.

Jon Jaunarenari tokatu zitzaion lehendabiziko sakea eta bere sake azkar eta zitalari esker 8-2 aurreratu zen instant batean. Zabaletak erantzuten jakin zuen eta 9-7 gerturatzea lortu zuen, baina justu orduan sake falta egin zuen, Jaunarenari airea emanaz. Hortik aurrera tarte zabala egitea lortu zuen Jaunarenak, eta beti aurretik joatearen lasaitasunarekin, 22-12 gailendu zen.

Hortaz ordezkari sakandarririk gabe geratu gara Buruz Buruko-



Beroiz Zabaleta baino gehiago izan zen.

an, Beroizek Ezkurdia kanporatu eta Jaunarenak Zabaleta bidean utzi ondoren. Buruz Burukoan, Aimar Olaizolak Barriola izango du arerio, Idoatek Urrutikoetxea, Bengoetxea VI.ak Jaunarena eta Martinez de Irujok Beroiz.

### IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA

## Asteburuan finalerdiei ekinen zaie



### Partiduak

**Gaur, ostiralean, 18:00etan, Etxarrendarrak:**

**Benjaminak:**

Laso - Azpiroz (Irurtzun) / Urruzola - Etxezarreta (Añorga) / Albeniz - Unanue (Añorga) / Arribillaga - Alonso (Andoain)

**Kimuak:**

Ganboa - Mariñelarena (Aldabide) / Zabaltza - Igoa (Ardoi) / Gutierrez - Bobadilla (Baños) / Oskoz - Cuairan (Oberena)

**Haurrak:**

Olaetxea - Alberdi (Aldabide) / Aranguren - Zubeldia (Zazpi Iturri)

Zubizarreta - Exposito (Lapke) / Salaberria - Mariezkurrena (Erreka)

## Aizkora



Floren Nazabal.

## Nazabal eta Rekondo, Urrezko Aizkorako finalera

Floren Nazabal etxarriarrak eta Jon Rekondok Banakako Urrezko Aizkorako finalerako sailkatzea lortu dute. Larunbatean final laurdenerako bi kanporaketa jokatu ziren. Goizean, Urduñan, Jon Rekondo izan zen onena (16:43). Bere atzetik sailkatu ziren Ugaitz Mugerza (17:24), Juanjo Lopez (18:30) eta Julen Kañameres (19:30). Eta arratsaldean, Diman, Floren Nazabalek ez zuen areririk izan (15:07). Atutxa bigarrenaren izan zen (16:40), Joseba Otaegi hirugarrena (17:41) eta Ander Erasun laugarrena (18:48). Nazabal eta Rekondo zuzenean sailkatu dira finalerako, eta beste bi finalista erabakitzeke finalerdietako bi jardunaldi jokatu dira. Larunbatean, Bilbon, Atutxa eta Lopezek jokatu dute, eta hemendik bi astera Mugertza eta Otaegi lehiatu dira. Finalerdia bakoitzeko onena finalean ariko da Nazabal eta Rekondorekin batera.

## Frontenisa

SAKANAKO EMAKUMEEN VI. FRONTENIS TXAPELKETA

## 5. jardunaldia jokoan

Sakanako Emakumeen VI. Frontenis Txapelketan 18 bikote ari dira lehiatzen, 9 biko lehen mailan eta beste 9 bigarren mailan. Gaur eta bihar hasierako ligaxkak 5. jardunaldia jokatu kodute Olaztinetan Etxarri Aranatzan.

### Emakumeen Frontenis Txapelketa. 5. jardunaldia

Olaztin, larunbatean 2. maila

**15:30ean:** Maria-Maidar / Izaskun-Mirentxu

**16:00etan:** Andrea-Izar / Ane-Uxue

Atsedean: Marta-Maite

**1. maila**

**16:30ean:** Ruth-Yolanda / Yanira-Maite

**17:00etan:** Beronika-Maite / Edurne-Vanesa

Atsedean: Kristina-Maialen

**Etxarri Aranatzan, ostiralean 1. maila**

**20:00etan:** Mireia-Elena / Ainhoa-Txaro

**2. maila**

**20:30ean:** Amañur-Irati / Maidar-Leonor

**21:00etan:** Uxue-Irati / Jone-Uxue

## Futbola

## Lagun Arteak liga despedituko du

Murtxante taldea hartuko du igandean Lakuntzan, 17:00etan

Larunbatean Eguesibar taldeak izugarri sufritu behar izan zuen Lagun Arteari 2-3 irabazteko. 3. mailari eusteko irabazi beharrean zeuden Eguesibarrek, baina oso zaila egin zitzaion, Lagun Arteak bitan berdindubaitzuen, baina azkenean lortu zuten. Saillkapen orokorrean San Juandaliderra (77 puntu), Mutilberari 2 puntu aterata. Lagun Artea 14.a da (45 puntu). Azken jardunaldia etxean jokatu du Lagun Arteak, igandean, 17:00etan, Lakuntzako Zelai Berrin, saillkapenean 52.a den Murtxante taldearen kontra. Zaleen aurrean irabaziz despeditu nahiko dute liga lakuntzarrek. 3. mailan joko andagoen lidergoa da, San Juanek edo Mutilberak liga irabazteko aukerak dituztelako.

## Altsasuko jubenilak Liga Nazionalera igotzear egon dira

Lehen mailako jubeniletan 4.a sailkatu da Altsasu

Lehen mailako jubenil mailan dabilen Altsasu taldeak Ardoiren kontra jokatu zuen larunbatean. Hil ala bizi-ko partida zen, Liga Nazionalera igotzea baitzegoen jokoan. Hori sekulakorpena litzateke, berez lehen mailako jubenil mailan egotea handi baita. Tamalez, ametsa ezin izan da bete. Nahiz eta ligako azken partidaren altsasuarrek Ardoiren kontrako partida irabazi, 2-1, Oberenak galdu beharra zuen, baina Itaroa Uharteri 0-1 irabaziz Oberenak. Horrela, 1. mailako jubenil mailako liderra Cantolagua izan da (70 puntu), Amigó bigarren (52 puntu), Oberena hirugarrena (52 puntu) eta Altsasu laugarrena (51 puntu). Puntu bateko aldeagatik dira Liga Nazionalerako sailkatu. Hala ere, berriro ere primerako denboraldia egin dute altsasuarrek eta lerro hauetatik gure zorian bereoenak bidali nahi dizkiegu.

## Areto futbola

IZURDIAGAKO FUTBOL 8

## 3. jardunaldia jokoan

Zortzi talde lehiatzen ari dira Izurdiagako Futbol 8 Txapelketan, bi multzotan banatuta. Asteburu honetan 3. jardunaldia dago jokoan, Izurdiagako futbol zelaian.

Emaitzak

Itxasperi Lacturale 0 - Guan Larraz 1  
Isotopos 6 - Rajatabla 4

### 3. jardunaldia

Larunbatean, Izurdiagan

**16:00etan:** Guanlarraz - Rajatabla

**18:00etan:** Karrotillo - La Txu

Atsedean: Marta-Maite

**Igandean, Izurdiagan**

**12:00etan:** Egiarreta - Gunea

## Sakandarrak Nafarroako Musika Eskolen egunean

Bihar ospatuko da Atarrabian eta Burlatan eta 23 musika eskoletako 1.400 ikaslek parte hartuko dute

**M**usika eskenatoki bihurtuko dira bihar Atarrabia eta Burlata. Nafarroa gutitik iritsitako formazio anitzek musika eskainiko dute: bandak, orkestrak, abesbatzak, kalejirak...

Goizeko 10:00etan abiatuko da egitaraua eta 13:30ean banda guztiak elkarrekin emandako kontzertuarekin despedituko da egitaraua.

Bi urtetik behin ospatzen da Nafarroako Musika Eskolen eguna. Aurtengoa bigarren edizioa da eta Irurtzun, Lakuntza eta Altsasuko musika eskolek parte hartuko dute. Hezkuntzan duten garrantzia aldarrikatuko dute bihar musika eskolek eta horrekin batera Nafarroako Gobernuari murriz-

ketak utzi eta musika eskolak behar bezala babesteko eskatuko diote.

### Sakandarrak

Irurtzundarrak 10:00etan Atarrabiako gaztetxean ariko dira, musika berrien konboen topaketan. 11:00etan Atarrabiako kultur etxe-ko erakusketa gelan Altsasuko gitarra taldeak joko du. Gainera, herri horretan 11:30etik 12:30era egingen diren bi kalejiretan musi-



UTZITAKOIA

kari sakandarrak izanen dira. Batean Irurtzungo trikitilariak parte hartuko dute, beste hainbat

musika eskoletako taldeekin batera eta bestean Lakuntza eta Altsasuko akordeoilariak ariko dira.

## Etxarri Aranazko abesbatzaren eskaintza zabala

Larunbatean, 19:45ean Arbizuko elizan

**E**txarri Aranazko abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar Arbizun. Emanaldia sei obra erlijiosorekin zabalduko du abesbatzak. Egile erromantikok eta XIX-XX. mendeko sortzaileen lanak izanen dira Arbizun entzungo direnak. Alizia Armendarizek zuzentzen duen abesbatzak emanaldiaren bigarren

zatian, espiritual amerikarrak, italiako doinuak eta euskal kantak abestuko dituzte.

Gainera, E. Rautavaara-ren Suite Lorca eskainiko du Etxarri Aranazko abesbatzak. Lau pieza motzez osatutako obra da. Lehengoan, *Canción del jinete* lauhazka doan erritmo batean oinarritua dago, *El grito*, ordea, oihiu batean. Hirugarrena, *La luna asoma* da eta, azkenak, *Malagueña*k gitarra baten zarrasta imitatzen du.



### Egitaraua

Richte Mich, Gott	F. Mendelsshon
Lux Aurumque	E. Whitacre
Ave Maria	F. Biebl
Salmo CXX	O. Olson
Beati Quorum Via	C. V. Stanford
O Magnum Mysterium	J. Busto
Witness	Jack Halloran
Shennandoah	James Erb
Suite Lorca	E. Rautavaara
1.- Canción del jinete	
2.- El grito	
3.- La luna asoma	
4.- Malagueña	
Segalariak	J. Elberdin
Ametsetan	J. Busto
Iru Txito	A. Donostia
Ensalada Italiana	F. Genee

## Erkudengo Ama abesbatzaren munduko eta bertako musikak

Domekan, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean

**L**ore Azoka eguna Altsasuko abesbatzaren musikarekin despedituko da. Inma Arroyoren zuzendaritzapean abesbatzak lehen zatian AEBko espiritualak eta kantu herrikoiak kantatuko ditu, habanerekin batera. Bigarren zatian bertako musikaren zatia izanen da. Eta hor aparte garrantzia hartuko dute Lorenzo Ondarrak Erkudengo

Ama abesbatzarendako propio egindako moldaketak. Horregatik, akaberan *Matalaz, Erribera, Oi ama Euskal Herri* eta *Ama Birjinari* kantuak abestuko dute.

Altsasuarrek aurtengo emanaldi guztietan gogora ekarriko dute Ondarra. Bere lana eskertu eta aitortu nahi dute horrela. Hala egingen dute garagarriaren 8an Noainen eta 15ean Montcada i Reixac-en. Erkudengo Ama abesbatzako kideek, bestalde, gizonezkoen haiekin batzeko deia luzatu diete.



Astelehenero eta ostegunero, 22:00etan, entseatzen du Iortia kul-

tur gunean. Kantuzaleek atea zabalik dituzte.

## Musika Etxarriko plazan

Igandean musika bueltatuko da Etxarri Aranazko kioskora. Musika Plazan zikloak ekarriko ditu doinuak. Hiru emanaldi izanen dira kioskoak hartuko dituenak. Guztiak ere 19:00etan hasiko dira eta Etxarrira AEBko, Euskal Herriko eta Kubako aireak ekarriko ditu. Zikloa **EuskOrleans Dixie Band** taldeak zabalduko da. Betiko euskal kantuak joko ditu, baina XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetako New Orleansgo jazz estiloarekin.

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**ANTSOTENEA**  
denda  
Makailua  
Konjelatuak  
Tel.: 948 500 388  
Foru enparantza 1  
**IRURTZUN**

**BUJANDA**  
okindegia  
Tel.: 948 467 503  
Kale Nagusia 31, **OLAZTI**

**ALZATE**  
**ERAIKUNTZAK**  
s.l.  
Zubetia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionosalzate.com

**asi**  
arreta eta orientazio  
psikologikorako zentrua  
Arantxa Sueskun Igoa  
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA  
Urbasa kalea 15, behea  
31800 - Altsasu (Nafarroa)  
948 467 354 - 669 367 422

# Errepublika garaiko titiritero haien oihartzuna

Larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Juslarocha antzerki taldea

Errepublika garaian antzerkia herrietara eramaten zuten konpainia haiek hartu dituzte Jus la Rochak bere obra berriari: *Esta noche teatro*. Jaime Simonen obra baten egokitzapena da. 1931n, errepublika indarrean sartu berri-tan, igandero zinema izaten den herri batek komiko konpainia bat kontratatuko du *Otelo* antzezteko. Herrirako bidean aktoreak zera-



matzan autobusak istripua du eta denak ospitalean bukatuko dute. Denak? Ez. Lehen aktorea eta zuzen-

daria dena ez ziren autobusean joaten. Hark herriko gazta dendako jabearen arrebarekin obra antzez-

tea erabakiko du eta horretarako guztia moldatu beharko dute, haien modura antzeztu ahal izateko.

## Taldea

Juslarocha taldea 1986an sortu zen, Herri Kultura Zentroaren (egungo Alaiz kolektiboa) 10. urteurrenagatik. Patxi Larrainzar apaizaren eta zentroko kolaboratzailearen obrak antzeztu hasi zen. Emakumezkoek osatzen zuten taldea eta emakumeen gai sozialak lantzen zituen. Azken urteetan gizonezkoak sartu dira, taldearen eskaintza handituz.

## Satira Nafarroako egoera taula gainean islatzeko, aldaketa proposatzeko

Kaka burutik behera: gaur, ostirala, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Hezkuntzan, osasun arloan, Hongozatean eta abarretan eskuineko politikek Nafarroako gizartean utzi duten arrastoa. Horiek guztiei ustelkeria, nagikeria eta oinarritzko giza eskubideen okertzea gehitu behar zaie. Osagai horiekin ondu dute Nafarroako egoerari buruzko komedia satirikoa Javier Esteban, Ainhoa Juaniz eta Isabel Azpirotz aktoreek. Umorea tresna hartuta egungo egoeraren karikatura barregarria antzeztuko dute, errealitatean oinarrituta duten egoera eta hitz jokoetan oinarrituta.

Nafarroako Euskal Herria Bildu koalizioak sustatu duen ikuskizuna "aldaketaren aldeko aliantza soziala iruten" jarraitzeko bide bat izan nahi du, koalizioak bada-kielako Nafarroan "adostasun zabalak behar ditugula, desberdinen arteko akordioak". Apirilean Altsasun arrakasta izan ondoren iritsiko da gaur Irurtzuneran.

# Eta sukaldaritza eskaintza aparta gero

Bihar Iortia kultur gunera joaten diren ikusleek ondoren afora gozo batekin gaua borobiltzeko aukera izanen dute. Izan ere, On Egin egitasmoaren bidez antzerkira joaten diren ikusleak sarrera erakuste hutsarekin %15eko deskontua izanen dute Biltoki, Basamutur, Arkangoa, Irubide, Iruñabide, Il Padrino edo-

ta Kaixo jatetxeetan aforazera koan. Ikusle guztiek Iortia sartzerakoan jatetxe bakoitzaren eskaintzaren berri zehatza ematen duen esku orria jasoko dute.

On Egin egitasmoa Altsasuko antzerki amateur zikloarekin batera jarri zen martxan aurreko larunbatean. Bihar eta hurrengo larunbatean (maiatzak 18an eta

25ean) izanen du segida. Eta, borobiltzeko, garagarriaren 8an Garik Berria egunkariaren alde eskainiko duen kontzertuaren ondoren ere ikusleak aforazera joateko aukera izanen dute sarrera erakuste hutsarekin.

Altsasuko jatetxeen, Altsasuko Udalen eta Bierrik fundazioaren arteko elkarlanaren ondorioz sor-

tu da On Egin egitasmoa. Kultura eta gastronomiatuz, tokiko ekonomia mugitzeko asmoa duen egitasmoa da. Disfrutatu antzeztan eta jaki gozoez eta, On Egin!



## Altsasuko plazako eskultura babesteko neurriak aztertzen

Aspalditik daki Udalak plazan dagoen eskultura gaizki dagoela. Azken urteetan bezala, larunbatean olio bidezko tratamendua eman zioten Altsasuko alegoria izan nahi duen eskulturrari. Hala ere, plazako artelanaren dako beste konponbide bat aztertzen

ari dira. Izan ere, egurra usteldu eta hainbat zatierori izan zaizkio aurretik eta etorkizunean bide berajarratuko du. Horregatik, Udala eskulturrendako irtenbideak aztertzen ari da. Horietako bat izan daiteke nonbaiten aterpean sartzea. Baina ez dago ezer zehaztuta.

## Eskultura

Jose Luis Ulibarrena Arellanok 1994an egin zuen eskultura. Hura egiteko langaia urtetan herriko plazan Altsasuko bizitzaren lekuko izan zen intxaurrondo zaharra izan zen. 1991ko abenduan kendu zuten plazatik gaixo zegoelako. Artistaren eskutan intxaurrondo zaharra Altsasu herria irudikapena bihurtu zen.

Zain altsasuarrek eskulturak Altsasuko 28 irudi eta sinbolo bil-

tzen ditu bere baitan: feminitatea, gizontasuna, nekazaritza, trenbidea, errementaritza, kobazuloak, basajaunak, hiru abeslari, ahuntza, dama bat, penaz dagoen arima, Mainamikirri sorgina, Garzia Ximenez erregea, txirrindularitza, ereilea, Altsasuko tontor eta gailurrak, pilotaria, uzta, artisautza, momotxorroak, gaueko eguzkia, jainkotasuna, inauteriak... Azken finean, Altsasu eskultura batean.



## bazterretik

Erkuden de Andres Imaz

### El barrio de los artistas 2013 artisten auzoa

Erakusketak, haurrentzako tailerrak, artisten estudioak denontzat irekiak, musika zuzenean, performaceak... Artea kalera aterako da denongana iristeko helburuz. Datorrenekinaren 8an, Iruñeko alde zaharra ARTEAZ beteko da. Aurten goa Artisten Auzoaren V. edizioa izango da. Eta ekintza honen atzean "El vértigo de la Trapecesta-Trapezistaren Zorabioa" izeneko elkarte kulturala dago, zeina 2008. urtean sortu zen. Ekintza honen bidez Arterean bidezko hiritarren arteko elkarriketa sustatu nahi dute, artistak eta hiritarren artisten sormen espazioetan batuz, hala nola, Arterean adie-

razpenerako espazio alternatibo berriak bilatuz. Mundua ikusi eta ulertzeko aniztasuna eta parte hartzea oinarritzko bi elementu dira ekintza hau antolatzen eta aurrera eramaten duten pertsonentzat. Artisten Auzoaren sormen artistikoa eta bere gozamenari eskainitako eguna da, auzo guztiari irekia dagoena. Hiriarren sortzaile ezberdinek haien ateak zabalduko dizkigute, Iruñeko alde zaharreko kaleak galeria, museo eta elkarriketa gunetan bilakatuz. Egun honen oinarritzko ideoa, Artea hiritarren adierazpen modu batean erabiltzea da, adierazteko edo zuzen duen pertsona guztiaren parte hartzea sustatuz. Horregatik programazioa heterogeneoa eta aberatsa izan goda, disziplina ezberdineko artistak batuz, urte asko daramatzaten artis-

ta eta hasi berri diren artisten arteko topagunea sortuz. Alde batetik artista ezberdinek proposamenak aurkezten dituzte eta bestetik alde zaharreko espazio ezberdinek haien espazioa eskaintzen dute. Dena musutruk egiten da, ez da dirurik bitarte egoten. Eta "El vértigo de la Trapecesta-Trapezistaren Zorabioa" osatzen duten pertsonak arduratzen dira programazioa sortzeaz. Eta ziur nago hila-bete askotako lanaren emaitza ekainaren 8an denok gozatuko dugula. Berehala informazioa eta egitaraua prest edukiko dute ondorengo web-orrian: [www.elvertigo-delatrapecesta.wordpress.com](http://www.elvertigo-delatrapecesta.wordpress.com) Agendan data apuntatu eta anima zaitzete! [www.hegandream.com](http://www.hegandream.com)



ARTISTEN AUZOA  
EL BARRIO DE LOS ARTISTAS



## Festak iragartzeko irudi bila Altsasun

Aurtengo festak iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Aurkezten diren lan guztiek Altsasuko Festak 2013 Fiestas de Alsasua 2013 leloa izan beharko dute, bai haurren bai helduen mailan.

Txikien maila Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta dago. Lanaren tamaina A3 bertikala izan behar du, ahal bada kartulinan. Materialei dagokienez, edozein erabil daiteke. Lanak garrilararen 18ko eguerdiko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira. Haiekin batera gutunazal batean egilearen berri ematen duten datuak (izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta ikasmila) eta kontakturako bideak eman beharko dituzte parte-hartzaileek.

Epaimahaiak sari bakarra emanen du: marrazketako materiala eta 60 euro eskudirutan.

Helduen mailan parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkez ditzake gehienez ere. Guztiak ere orijinalak. Sortzaileek euren lana egiteko edozein teknika erabil dezake, baina beti ere A3 edo 70 cm luzerako eta 50 cm zabalerako neurrian. Lanak euskarri gogor batean aurkeztu behar dira, garilararen 16ko 14:00ak baino lehen eta plika sistema erabiliko da. Udalak izendatutako epaimahaiak hiru kartel finalistak aukeratu ditu eta garilararen 19tik 31ra herri galdeketa egingen da, festak iragartzeko kartela aukeratzeko. Bere egileak 600 euro eskuratuko ditu.



# Sortzaile baratza

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Sakanako eskolarteko komiki eta literatur lehiaketa antolatu du aurten ere. Besteak beste haur literatura idatzi zuen Maria Markotegi etxarriarra gogoratzeko haren izena du lehiaketak. Sormena euskaraz sustatzeko bidea da Mank-endako aipatu lehiaketa. Sari banaketa ekitaldian Euskara batzordeko buruz Maite Aldaz eta Olatzagutiko zinegotzi Mikel Askargorta izan ziren. Haiekin batera, Markotegiren seme-alabak izan ziren. Mank-ek saritan 1.580 euro banatu zituen.

### Guztira 215 lan aurkeztu ziren lehiaketara, 9 ikastetxeetatik iritsitakoak:

Jesusen Bihotza ikastetxea, Aralar Mikel Donea IBHI, Zelandi ikastetxe publikoa, Iñigo Aritzika ikastola, Urdaingo Herri Eskola, San Donato ikastetxe publikoa, Andra Mari ikastola eta Luis Fuentes ikastetxe publikoa. Literatur arloko lanak Toñy Lopezek eta Izaskun Etberriak epaitu zituzten. Komikisailekoak, berriz, Miren Ustarrozek eta Cristina Fernandezek.

AEK-ko Itsasi euskaltegiko ikasleek eta mintzakide programako kideek nano ipuinak aurkeztuz parte hartu zuten lehiaketan. Ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera eman nahi du lehiaketa horrek. Monika Etxeberría eta Maria Luisa Zelaia epaimahaia osatu zuten.

#### Narrazioa (117 lan)

##### LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena

1. Liburu debekatua	Julen Soto Satrustegi	Lakuntza	Andra Mari
2. Karuso kanarioa	Haizea Goñi Berekoetxea	Arbizu	Andra Mari
2. Zapatila	Ariane Legarra Marcos	Altsasu	Zelandi

##### DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena

1. Hutsik			
2. Agente sekretua	Ander Lakuntza Unzilla	Etxarri Aranatz	Andra Mari

##### DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena

1. Hutsik			
2. Euskadiko txapelketa	Eneko Aramendia Telleria	Iturmendi	Jesusen Bihotza

##### Batzilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena

1. Nora	Maider Arenaza Oreja	Uhartte Arakil	Aralarko Mikel Donea
2. Zeruranzko norabidean	Amagoia Hermoso de Mendoza Sainz	Uhartte Arakil	Aralarko Mikel Donea

#### Poesia (20 lan)

##### LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena

1. Bordako bizia	Aimar Araña Martxueta	Etxarri Aranatz	Andra Mari
2. Udaberria	Ander Flores Palacios	Arbizu	Andra Mari

##### DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena

1. Nahia eta ezina	Itziar Razkin Lopez de Uralde	Arbizu	Andra Mari
2. Poemak	Jon Kintana Razkin	Etxarri Aranatz	Andra Mari

##### DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena

1. Oroipenean	Alba Marín Amigo	Olazti	Jesusen Bihotza
2. Hutsik			

##### Batzilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena

1. Ihintzaren azken zipiritinak	Jaione Diaz Mazkarian	Altsasu	Aralarko Mikel Donea
2. Zergatik?	Maider Arenaza Oreja	Uhartte Arakil	Aralarko Mikel Donea

#### Komikia (78 lan)

##### LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena

1. Tximeleta	Iker Andueza Flores	Lakuntza	Luis Fuentes
2. Azterketa	Xabier Alegria Gartziandia	Lakuntza	Andra Mari

##### DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena

1. Torrizikin bere gauzetan	Unai Irigoien Ausin	Altsasu	Iñigo Aritzika
2. Labagailua	Ander Gil Amado	Olazti	Iñigo Aritzika
2. Juanito Arregi	Aitor Bengoetxea Larunbe	Altsasu	Iñigo Aritzika

##### DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena

1. Hiru mosketariak	Markel Galbete Arnantz	Olazti	Iñigo Aritzika
2. Hutsik			

##### Batzilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena

1. Hutsik			
2. Abenduko egun hotz batean	Itziar Martiarena Otxagabia	Uhartte Arakil	Aralarko Mikel Donea

#### Euskaltegietako ikasle zein mintzakideendako nanoipuin lehiaketa (68 lan)

##### 1. maila (36 lan)

Euskaltegia hasi zen	Mari Gwen Davies	Urdaín	
Arriskuen lehengusua	Patxi Rabaz Irañeta	Arbizu	

##### 2. maila (27 lan)

Amona jakintsua	Luis Lumbreras Rodríguez (Ziordia) eta Pepa de Miguel Zufiaurre (Olazti)		
-----------------	--	--	--

##### 3. maila (5 lan)

Kutxa bat bonboi	Maite Argüelles Sarazibar	Altsasu	
------------------	---------------------------	---------	--

##### Aipamen berezia

Badakizue zergatik esaten dioten "Kalderete" Joxeri?		Idoia Artieda Larraza	Etxarri Aranatz
--	--	-----------------------	-----------------

MAIATZAK 7-26 ERAKUSKETA

**KOLDO ARNAZ**

ARTE ESCOLA ESCUELA DE ARTE

MAIATZAK 18 20:30

**ESTA NOCHE TEATRO**

JUS LA ROCHA

ANNA KARENINA

OSTIRALA IGANDEA

17 22:00 19 20:10

5€

Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800 Altsasu · 948584272 · iortia@altsasu.net · www.facebook.com/iortia

## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 75%	euria: 98%	euria: 55%	euria: 66%	euria: 78%	euria: 90%	euria: 78%	
Min: 5 Max: 11	Min: 5 Max: 10	Min: 4 Max: 13	Min: 6 Max: 14	Min: 7 Max: 14	Min: 8 Max: 13	Min: 6 Max: 12	

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	22.5	0.6	19.9
Altsasu	21.5	2.5	20.5
Aralar	14.8	-0.2	26.1
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	☾	☽	☾	☽
	18	25	31	8

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu

%5eko deskontua bazkide diren udaletxeei

Eskatu aurrekontua

948 564 275 / 948 562 107

# >> 11

## galdera

Estibaliz Irigoien

2. eskuko denda Altsasun

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Ana Garisoain eta Estibaliz Irigoien.

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

- 1. Bigarren eskuko Eskuz Esku denda ireki duzue Altsasun. Ideia berritzailea da.**

Anari eta bioi bururatu zitzaigun. Langabetuen asanbladaren bilera batean egon ginen. Gure artean hitz egiten, bigarren eskuko denda bat irekitzea ideia ona izango zela pentsatu genuen.
- 2. Nolako da funtzionamendua?**

Jendeak gauzak ekartzen dizkigu eta hortik aukeratzen dugudenda salgai jarriko ditugunak. Ekartzen duen pertsonari ekarritako arenehuneko bat ematen diogu deskontu txartel batean, eta salmentan jartzen duguna guretzat da. Denetarik aurkitu dezakegu: teleskopio bat, arropa, haurrentzako jostailuak, liburuak, hozkailuak...
- 3. Jende askok ekarri ditu gauzak?**

Bai. Etxeetara joan gara, eta guk jasotzen ditugu. Oraintxe bertan denda beteta dugu eta dena jendeak eman duenarekin lortu dugu. Jendearen erantzuna espero genuen, pentsaera aldatzen ari delako. Jendeak oso ideia ona dela esaten digu eta horrek zure proiektuan sinesten dutela esan nahi du.
- 4. Denda krisiari irtenbidea izan daiteke kontsumo aldetik?**

Duela 10 urte Sakanan zegoen bizi-modu mailarekin dendak ez zuen aurrera egingo. Baina orain krisi ekonomikoarekin erosteko beste aukera bat da, merkeagoa. Gainera produktuei bigarren bizitza bat ematen diegu, birziklatzen dugulako. Eta birziklatzea oso garrantzitsua da mundu hau mantentzeko. Baina txipa aldatu behar da, kontsumitzeko modua aldatu.

- 5. Nola birziklatzen duzue dendan?**

Dena birziklatzen dugu. Praka bat oso hautsita badago traperoetara joango da, baina kremaile-ra bat apurtuta badago guk konponduko dugu. Pertsona batek ez badu produktu jakin bat erabili behar, hona ekarrita beste pertsona bati aukera ematen dio erabiltzeko. Jostailuak ere birziklatzen ditugu; adibidez, 10 urteko umeak ez du erabiliko 3 urteekin erabiltzen zuen jostailua. Hemen jostailu hori konpondu eta berriro saldu dezakegu.
- 6. Hortaz, jendea zerbait bota aurretik hona etor daiteke. Zuek esango diozue balio duen ala ez.**

Hori da ideia. Azkenean xedea da zuk daukazu produktu bat zakarrontzian ez gelditzea. Gainera, dendan ikusi dezakete interesatzen zaien beste zerezer. Orduan, gauzak ekartzerakoan jaso duten deskontu txartelarekin merkeagoa aterako zaio hori erostea.
- 7. Produktuak saldu aurretik nola tratatzen dituzue?**

Produktuak iristerakoan begiratzten ditugu eta sailkatu egiten ditugu. Ez badu funtzionatzen, oso zikina edo hautsita badago ezin dugu ezer egin. Traperoetara joango da edo txatarra biltzen duen lagun bati emango diogu. Ez dugu ezer zakarrontzira botatzen. Bestela, garbitzen ditugu eta prestatzen ditugu dendarako. Arropa guztiak garbitzailetik pasatzen dira eta lisatzen ditugu. Jostailuak eta bestelako produktuak ongi garbitzen ditugu.
- 8. Denda jartzea aurrera egiteko modu bat da?**

Ana langabezian zegoen eta nik ez neukan lan finko bat. Betidanik ideia ona dela iruditu zaigu eta Iruñeatik Gasteizera ez dago horrelako ezer. Etxean gelditzen bazara ez da ezer iristen.

**9. Zuen kabuz lan egitearen alde onak eta alde txarrak.**

Alde onak dira gure proiektu bat dela eta guk nahi dugun moduan egingo dugula. Zuk daukazun amets bat egia bihurtzen da eta ilusioa egiten du. Eta alde txarra azkenean 24 orduz egin behar duzula lan; oso zaila da deskonektatzea. Bizi izan dugun bide guztia ere; bajera bat zen eta denda bat bihurtzea ez da hain erraza izan.

**10. Zaila izan da urratsa? Erakundeen laguntza izan duzue?**

Zaila izan da. Elkarrekin geundelako, bestela agiri guztiak egin behar izatea ez da erraza: proiektua egin, gestoriara joan behar... Ez dugu erakundeen laguntza izan. Cedernan egon ginen eta proiektua ezezela bideragarri esan ziguten. Inguruko jendeari eta familiari esker egin dugu aurrera. Beste talde batekin harremanetan gaude, antzeko zerbait egiten dutena, eta elkarlanean arituko gara; haiek publizitatea egingo digute eta guk haiei.

**11. Eta une politak?**

Bajera bat denda bihurtzea eta denda ikustea oso polita izan da. Ia guztia guk egin dugu. Apalak jarri, apaindu... dena birziklatuta eta gure irudiarekin egin dugu. Guretzako hau dena berria da. Buruhauste handiak izan dira, baina polita da.